

uk

199. zerbakia / 2011ko azialaren 18a



Atzeko jesarlekua
estreinatu
aurretik...

Praktika! ezazu!

**Gidabaimena
euskaraz**

L

Diru-laguntzak
gidabaimena ateratzeko
azterketa euskaraz egiteagatik*

**Teorikoa gehienez 150€
Praktikoa gehienez 50€
lehenengo klasean**

Getxoko autoeskolak euskaraz

ALGORTA AUTOESKOLA Tel. 94 460 94 43 AMEZTI AUTOESKOLA Tel. 94 491 09 15 ARIAS AUTOESKOLA Tel. 94 463 88 57 / 94 430 11 44 / 94 463 00 19 DAM AUTOESKOLA Tel. 94 602 05 09 GETXO AUTOESKOLA Tel. 94 430 25 71 PRECIADO AUTOESKOLA Tel. 651 961 901 SAN INAZIO AUTOESKOLA Tel. 94 460 00 45 URIBE KOSTA AUTOESKOLA Tel. 94 430 06 05

Informazio gehiago: 94 466 00 11

*17-23 urte artekoentzat

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
ERREDAKZIOA: Zuberoa Iturburu, Julen Nafarrate, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Menthaka
TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
AHOLKULARITZA: Jokin Aspuru
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko
herri aldizkari eta euskara elkarteon
Topaguneko partaide da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Sopelako sanpedroak.
7. LEHEN ETA ORAIN. Getxo.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Amaia Fernandez eta Kepa Ugarte.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. La Parraren heriotza.
28. ARGAZKIA. Boxeo, Portu Zaharreko jaietan.
30. BERBETAN. Garbi Losada.
34. FOTOGRAFIA. Itxas Argia, argazki zaharrak.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Basartena Laburmetrai Lehiaketa.
43. MUSIKA. Last Fair Deal musika taldea.
44. LIBURUAK. Udarako proposamenak.
45. KIROLAK. Uribe Kostako arraunlariak.
46. ELKARRIZKETA. Paulo Rojas.

AMAITZEKO

49. UDAKO ZAPOREAK. Algortako Txipiroi lehiaketa.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Getxoko Paella Eguna 1964an.
54. AITORMENAK. Jose Mari (Bizardunak).

Azala: Itxas Argia

www.ukaldizkaria.biz




30 Garbi Losada

Berbetan

Ibilbide luzea antzerki munduan;
azken urteak Donostin eman baditu
ere Algorta bihotzean du Losadak.



11 A. Fernandez eta K. Ugarte



54 Jose Mari (Bizardunak)

Leioa Berri Auto
HARTU TXANDA ONLINE-CITA ONLINE
www.renaultleioa.com
Tf. 94 480 46 02

Leioa RENTACAR
Ibilgailu-alokairua
Tf. 682 466 466
www.leioarentacar.com

Armando Llamosas

> arkeologoa

Defenda ditzagun gure defentsak!

Gudak duela asko desagertu dira gure ohiko testuingurutik. Hala ere, hori ez da inoiz horrela izan. Tamalez, guda izan da gizakiaren egoera arruntena. Gatazka horien orbainek herrien kontzientzian ez ezik, lurretan ere irauten dute. Izan ere, gure eskualdeak bere gatazketako azpiegitura asko mantendu ditu mendeetan zehar. Bitxia da, baina gehienak ez dira erabili borroketan, guda bere ondoan pasatu zen, eta denborak (ahantzziak) egin du suntsipen-lana.

Oso ezaguna da Burdin gerrikoa, modan dago. Noizbehinka bisita gidaturen bat antolatzen du udalaren batek (Sopelak gehienetan). Espero dezagun ezagutza ondoren aztarnaren balorazioa ere heltzea. Baina guda hori ez zen bakarra, hurbilena izan arren, beste gatazka asko sufritu dituzte gure arbasoek eta, horregatik, defentsak eraiki zituzten, beste burdin gerrikoak. Hala, gure kosta Getxotik Gorlizera (Bizkaiko kostalde osoa) gazteluz eta kanoiz beteta egon zen, batez ere XVII. eta XVIII. mendeetan, oso gatazka-tsua ziren eta. Horietako ezagunena dudarik gabe, Printzepe gaztelua da, Galean (Getxo). Gaztelu horrek, izua eta militartasuna behin kenduta, horren arkitektura oso adibide ona da: izar oin-planta, lubakiak, horma inklinatuak eta atari monumentala. Gazteluak orain arte mantentzea lortu badu ere, ez dago hain argi noiz arte, batez ere, azken urtetako tratamendua ikusten badugu. Utzita izateaz gain, jendearen presioa itzel handitu da, utzikeria azpimarratzen duena. Gaztelu horrek kanoiak eta guzti mantentzen ditu eta oso multzo ona sortzen du paisaiarekin eta itsasadarreko sarrerarekin batera. Botilatzarrez eta utzikeriez desagertzea ez da amaiera duina gaztelu horretarako.

Horretaz gain, gaztelu asko egon ziren gure kostaldean, batez ere sarrera nagusiak defendatzeko, Butroi eta Ibaizabal, hau da, Plentzia eta Bilboko Abran. Getxon oraindik



azter daiteke, Usategin, gotorleku zaharrenen itxura. Horren kokapenak agerian utzi du defentsako estrategia, oraingo aisiaren estrategia bera dela, Printze kasuan bezala. Beste asko dugu, edo hobeto esanda izan dugu: Getxoko Arrigunagako skate pistetan, Sopelako hondartzan, Barrikan eta Astondon (Gorliz) Plentzia defendatzeko...

Ez ditut ahaztu nahi Frankok egindako kosta-defentsak, guztiok haien artean jolastu gara, eta ikusi ditugu desagertzen. Behin

Frankoren hatsa kenduta pedagogia eta historia egiteko aukera ezin hobea dira (ziren). Gehienetan arkeologia kasu bihurtu dira, baina gure historiako garrantzitsuak. Ondarea edo historia gustatzen ez bazaigu ere, bakarrik pentsatu behar dugu bere egileen eta erabiltzaileen izuetan: Munarrikolandan edo kostan; Franko, ingeles... etsaien zain; zulo batean, hormaren kontra...; bere bizitza, ondasun eta familiaz pentsatuz. Izutua. Balorazioa desberdina da, ezta? ○

gu geu

Hori izan dedilla okerrik haundiena

UK-ko bulegoan tarteka, gure lehiaketa irabazi edo Euskaltel-en eskaintza barria saldu gura digutenenak ez diren delak edo bisitak jasotzen ditugu. Irakurle-ikusle edo kuriosoenak izan ohi dira. Aldizkaria eskuan hartu eta detektibe behar sakonik egin barik, aldizkarian aurkitutako akatsez ohartarazten digute. Gehienetan, euren hurbileko baten aipamenetan aurkitzen dituzte akatsak. Batzuek goxo-goxo azaltzen digute zertan egin dugun kale eta konturik eskatu barik eskerrak emanez agurtzen dira. Besteak, aldiz, zorrotzago agertu eta zuzenketa oharra jartzeko gonbitea egiten digute. Batzuei zein besteei eskerrak eman gura dizkiegu; aldizkaria adi eta gogoz irakurri duten seinale ditugu euren zuzenketak, gure beharrekiko “begirune oharra” dira.

199. zenbaki honetan ere, ikus dezakezue, ohartxoei tartetxoa egin diegu, poz-pozik gainera. Ikusiko da hurrengoan, 200. zenbaki borobilean, akatsen orde z sorpresa politak aurkitzen dituzuen... artxila mortxila!

UK-ko lantaldea

***OHARRA: UK 196. zenbakiko 37. orrialdean argazki oinean Juan Bengoetxea izena duen argazkia oker dago; Juan Basterretxea da argazkian agertzen dena.**



Zapia lepoan... / ...euskara ahoan! Sopelako sanpedroetako pregoia Aitxu! euskara taldeak bota du aurren, udaltxeko balkoitik, eta txupinari izaera berezia eman zioten. Balkoitik zapi erraldoia eskegi eta auzokideen artean zapiak banatu zituzten. Aitxu! taldeko lagunek Sopelako apaiza izan zena izan zuten gogoan: “*Indarrak batu eta lepora alxatu genduan euskara, Nikola Telleriak erabutsi euskun modun*”. Txupinari amaiera emoreko, abesti ezagun baten letra aldatu eta alkarregaz abestu zuten sopeloztarrek... “*San Pedro bera ere, heldu da bestara, euskara eguneroko, zapi laranja da...*” ○ / Argazkia: Asier Mertzaka

EKAINAK 28: SOPELA



Kopiak **SALGAI**

UK aldizkariko bulegoan

Martikoena 16, 2. solairua
Algorta (Getxo)
Alangoko Osasun Zentroaren alboan

Uribe Kostako aldizkariaren ekoizpena



[lehen]



INDALECO OLAGUEREN

[orain]



ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / LEMOIZ

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > itsasoari begira



2011ko ekaina, Ereaga (Getxo)

Testua: **Imanol Uria** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: *Bautista Basterretxe*

Aurten ere urtero
helden den erara
kurtsoa amaituta
udan sartu gara.
Patxadan egoteko
bide onena da
arazoak ahaztuta
goazen ondartzara.

Jakin behar da beti
bilatzen oreka
eta hondartzan jarri
behar da arreta.
Bestela amaitzeaz
gainera erreta
eguzkiak tontotu
behar gaitu eta.

Arazoak ahaztuz
behar den neurrira
gutxi barru helduko
baikara urrira.
Eta arazo denak
hor egongo dira
beti itsasoari
bagaude begira.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal iezaguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz



Bizkaiko Urtxintxa Eskola

ASTIALDI ETA SUSPERTZE SOZIOKULTURALEKO

IKASTAROAK

Tel: 94 432 04 45



Matrikulazioa irailaren 1etik 30era
TITULAZIO OFIZIALAK eta gehiago

- Astialdiko Begiralea *Getxon* • Astialdiko Zuzendaria • Jendarte Kultur Dinamiza-tzailea • Hezkidetzan Aditua •
- Kulturarteko Hezkuntzan Aditua •
- Heziketa Premia Bereziak Astialdian •
- Guraso Eskola + IKASTARO LABURRAK

www.urtxintxaeskola.org

argazkilaritza > ekogune argazki lehiaketa abiatu dute



Oinarriak: www.uribekosta.org

Lehenengo argazki lehiaketa antolatu du Ekogunek, Uribe Kostako Mankomunitateagaz batera, Mugikortasun Iraunkorraren Europar Astearen baitan; irailaren 16tik 22ra egingo da. Argazkiak, ordea, irailaren 9a baino lehen aurkeztu behar dira. Eta ekimen horren baitan, bizikleta aukeratu dute argazkietarako gai, ezin beste modu batean izan. Parte hartzeko 18 urte eduki behar dira, teknika librea erabiliko da eta zuri-beltzean edo koloretan aurkez daitezke Mankomunitateko bulegoan (Gatzarriñe 4, Sopela). Epaimahaiak baloratuko ditu lanak, kalitatea, originaltasuna eta gaia tratatzeko era kontuan hartuz. Uribe Kostako kultur etxeetako teknikariek, argazkilari profesional batek eta Ekoguneko ordezkari batek osatuko dute epaimahaia. Bi sari emango dituzte, 300 eta 150 eurokoak. Epaia irailaren 16an ezagutaraziko dute, webgunearen bitartez: www.uribekosta.org.

musika > siroka finalista Europako hizkuntza gutxituen Liet lehiaketan



Info+: www.sirokataldea.com eta www.liet.nl/en/international

Europako hizkuntza gutxituetan abesten duten musika taldeen lehiaketa da Liet International eta aurtengo finalisten artean dago Siroka. Berrogei talderen artean aukeratu dute eta beste lau taldegaz batera jokatu dute finala azaroaren 19an, Italiako Udine herrian. 2002an sortu zuen lehiaketa Frisiera fundazioak. Udineko hizkuntza da frisiera, eta urteotan, Eurovision festibaleko alternatiba bihurtu da Last International, ingelesez abestea debekaturik dago eta: hizkuntza gutxituetan abesten duten talde *modernoak* biltzeko sortu zuten. Gainontzeko finalistak dira Noid taldea (Errusiako Kareliar Errepublikatik, kareliarrez abesten dute), Aoife Scott (Irlandatik, inverineraz abesten dute), Silent Woo Goore (Errusiako Udmurtiar Errepublikatik, udmurtueraz abesten dute) eta Manam.

saiazgetaria

HOTELA

Roke Deuna 25
20808 *Getaria*
Gipuzkoa



...harria



...lehengo garaia...



...itsasoa

www.saiaszgetaria.com / info@saiaszgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

zinema > kameratoia lehiaketaren sari-banaketa uztailaren 23an



www.kameratoia.com

Euskarazko film laburren rallya jokatzten ari da egunotan. Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak antolatzen du eta Uribe Kosta aukeratu dute aurten lehiaketa garatzeko. Horregatik, Uribe-Kostako Mankomunitatearen eta Sopela, Urduliz eta Lemoizko udalen laguntza jaso du ikus-entzunezko rallyaren zazpigarren edizioa gauzatzeko. Ekimenagaz gazte euskaldunen sormena sustatu gura du Topaguneak. Uztailaren 9an eman zieten gaiaren barri parte-hartzaileei; 19 taldek eman du izena. *Txiri txiri pitxin* da film laburretarako gaia eta eskualdeagaz harremana izan behar dute. UK aldizkaria, *Zer ikusi, ha ikasi* eta Bizimeta egitasmoak, eta Sopela, Urduliz zein Lemoizko tokirik adierazgarrienak biltzen dituen dossierra eman diete egileei, eskualdea hobeto ezagutzeko. Hilaren 23an emango dituzte laburrak Sopolako Kurtzio Kultur Etxean, 17:30etik aurrera. Ekitaldi horretan banatuko dituzte sariak. ○

topaketak > auzolanari buruzko lehen topaketak izango dira Usurbilen



Info+: www.auzolan.info

Euskal Herrian ohitura historikoa dugu auzolana. Horregatik, eta gaia sakontasunez lantzeko, Auzolan I. Topaketak egingo dituzte irailaren 30ean eta urriaren 1ean eta 2an Usurbilen. Antolatzaileek azaldu dutenez, “auzolana bitarteko egokia da egun bizi dugun zibilizazio eta ekonomi krisiari aurre egiteko”. Beraien iritziz, auzolanak eta herrigintzak berebiziko garrantzia izan dute herri garapenean, eta egun premia are eta nabariagoa da. Topaketa bitartez, auzolanari buruzko esperientziak bildu, hausnarketa bultzatu eta etorkizuneko lanildoak proposatu gura dituzte. Beraz, auzolanean jarduten eta gaian interesa daukaten norbanako edota erakunde oro gonbidatu dituzte parte hartzera. Egitarauaren barri eman dute dagoeneko, webgunearen bitartez: www.auzolan.info. ○



[erretratua]

“Koadrilen egunean belaunaldi ezberdinetako koadrilak batu gura ditugu”

A. Fernandez eta K. Ugarte > Algortako Jai Batzordea

Jaiak datozela entzun eta herri-bazkariak, bertso-saioak, parranda... etortzen zaizkie gogora algortar gehienei. Baina saninazioak hurreratzaren direnean badira estresa eta urduritasuna sentitzen duten algortarrak: bazkarirako aulkiak lotzeko, baimenak, musika taldeen eskaerak... Horretaz eta askoz gehiagotaz arduratzen dira Amaia Fernandez eta Kepa Ugarte Algortako Jai Batzordeko kideak. Hamabi elkarteek parte hartzen dute ‘jaiba’-n, baina eurak arduratzen dira koordinazioaz: “*Aurten hausnarketa egin dugu Jai Batzordean eragile eta auzokideen parte hartzea bultzatzeko*”. Hamar urte baino gehiago daroe Jai Batzordean, baina azken urteetan pisu guztia euren gain jaso dute: “*Jai ereduaren gain argi dekogu: parte-hartzaileak, herrikoiak, euskaltzaleak, parekideak... Paperean ondo geratzen da, baina sumatu dugu urteen poderioz agian oso automatikoki antolatu ditugula jaiak*”. Jaiaren antolaketan ez ezik, jaietan ere parte-hartzea bultzatu gura dute: “*Ez ditugu subjektu pasiboak gura; kontzertu edo bertso-saioetara joan eta etxera doazenak. Denon artean sortu behar dugu herri-giroa*”. Horregatik, koadrilek izango dute protagonismoa: “*Koadrilen egunean, belaunaldi ezberdinetako koadrilak batu gura ditugu*”. Gora eta behera ibiliko dira Kepa eta Amaia jaietan eta, gainera, batzuetan kritika zorrotzak jasotzen dituzte: “*...ba etorri eta lagundu!*”. Jai Batzordea zain duzu. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan
Villa de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Udalbatzaren lehen erabakiak

EAJko 10 zinegotziek osatuko dute **Udal Gobernu**a; ekainean egin zuten lehen Osoko Bilkura eta **EAJ-PP-PSE akordioari** esker **udal taldeen diru sariak** eta beste zenbait neurri adostea lortu zuten

Maiatzaren 22a aspaldi joan zitzaigun eta dagoeneko martxan jarri dira datozen lau urteetan Udalbatzaren parte diren 25 zinegotziak. EAJk bakarrik osatu du Udal Gobernu bere 10 zinegotziekin. Ekainean egindako aparteko lehen Osoko Bilkuran, zenbait neurri barri hartu zituzten diru-sari zein Batzorde Informatiboen inguruan, besteak beste.

Ekainaren 30ean egin zuen lehenengo Aparteko Osoko Bilkura Getxoko Udalbatza barriak. EAJren 10, PPren 9, Bilduren 4 eta PSEren 2 zinegotziek osatuko dute udalbatza datozen lau urteetan.

Gehiengo absolutua ez izan arren, EAJko 10 zinegotziek osatuko dute Udal Gobernu. Horien artean aurpegi barri bi daude, Ana Helguera eta Itziar Epalza, hain zuzen ere. Gobernu taldearen buruan Imanol Landa alkatea egongo da barriz ere. Keltse Eiguren lehen alkateordeak, Zerbitzu Orokorrak, Aukera Berdintasuna, Jasangarritasuna, Ingurumena eta udaltzaingoaren ardura hartuko ditu. Bigarren alkateordea, Koldo Iturbe, Kultura, Gazteria eta Euskara Sailetakozinegotzia izateaz gain, Kultur Etxearen presidentea ere izango da; gainera, EAJren bozeramaile lanak egingo ditu. Joseba Arregi, hirugarren alkateordea, Hirigintza, Herrilan eta Zerbitzuak, Etxebizitza eta Ondarea arloetako buru izango da. Ana Helguera Ogasun, Giza Baliabide eta Ekonomia-Sustapen arloko ardurak



Osoko Bilkurako kideak

hartuko ditu lehen aldiz. Itziar Epalza Ogasun eta Ekonomia Sustapenerako Arloen zinegotzia izango da eta Elena Coria Gizarte Zerbitzuena. Alvaro Gonzalez Kiroletako Zinegotzia izateaz gain, Getxo Kirolakeko presidentea eta Kon-

«Legegintzaldi honetan Osoko Bilkurak martitzenetan 17:00etan egingo dira»

tratazio Zerbitzuetako arduradun izendatu dute. Kepa Miñambresen, Udal Zahar Etxearen presidentea, Kalitate Zerbitzua, Informazio Sistemak, Hezkuntza eta Garapenerako Lankidetzaren arloak hartu ditu. Azkenik, Josu Loroñok, Komunikazioa, Hiritarren Arreta eta Babes Zibileko ardura, Andres Isasi Musika Es-

kolaren presidentziagaz partekatuko du. Behin udalbatza osatuta egindako lehen Osoko Bilkuran zenbait neurri onartu ziren EAJ, PP eta PSEk lortutako akordioari esker. Alde batetik, Osoko Bilkurak martitzenetan 17:00etan egitea onartu zen aho batez. Horrez gain, orain arte zeuden sei Batzorde Informatiboak hirura murriztea, alkate, zinegotzi eta alderi politikoen administrazio langileen eta aholkularien soldatak bere horretan mantentzea, 8 zinegotzitik gora dituzten udal taldeei aholkulari erdia kentzea eta udal taldeei ematen zaien diru-kopurua murriztea erabaki zen. Horrekin “zorroztasunez eta erantzukizunez” erantzun gura dutela nabarmendu zuen Getxoko Alkateak. Bildu, aldiz, erabakien kontra agertu zen, eta liberazioak 18ra jaiste eta soldatak murriztea proposatu zuen. ○

Algortarrak saninazioetan > egurre!

Bertsoak, musika, txipiroi lehiaketa, koadrilen txapelketa... zein aukeratu?



Geltokia Plaza, Teilagorri eta Biotz Alai plazetan egingo dira ekintza gehienak

Ez dago atsedenerako tarterik. San Inazio Jaiek ume, gazte zein hain gazte ez direnak lehen eginda uzteko moduko egitaraua ekarriko dute uztailaren 28tik abuztuaren 1era bitartean. Bertsolariak, gauetako kontzertuak, zein kirol eta gastronomia lehiaketak egitarauaren ardatz nagusi badiara ere, herri-bazkariak, koadrila jaitsierak eta bestelakoak goizetik gauera gelditu barik egoteko aukera emango dute.

Laketsak koadrilak irakurritako pregoiagaz eta Getxo Rugby Taldeak jaurtitako txupinagaz hasiera emango zaie saninazioei. Lehen egunean, Moby Dick bakarla-

ri getxoztarraren eta KOP eta Zea Mays taldeen kontzertua izango da egitarauko ekintzarik indartsuena.

Hortik aurrera, egun bakoitzak protagonista bereziak izango ditu: 29a ume eta gazteen eguna izango da, 30a koadrilena, 31 San Inazio egun handia eta, amaitzeko, 1ean, txipiroi gastronomi lehiaketa izango da jaun eta jabe.

Txosna gunea zein kontzertu handiak Geltokia Plazan kokatuko dira bigarren urtez; horrez gain, Biotz Alai eta Teilagorri plazek hartuko dituzte gainontzeko ekintza gehienak. Laguntxu, ondo pasa... pasa barik! ○

Asociación de Amigos Algorteros
"Amumak"

Asteazken poetikoak
Itsas Fundazioa
Euskara eta Algortako izenak
Alzheimer, 3. Adina, Boluntarioak

http://www.algorta.org
http://amumak.getxo.net
e-mail: solaventoster@gmail.com
Móvil: 656773080

Garaizar

barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regarizar@euskalnet.net
Ilieta kalea 1 • ALGORTA

Ekitaldi batzuk

- **Uztailak 28, eguna:**
 - Pregoi eta txupina (Geltokia p.; 18:30)
 - Koadrilen jaitsiera (Geltokia p.; 19:00)
 - Suzko zezena (Geltokia p.; 22:00)
 - Kontzertuak: Moby Dick, KOP, Zea Mays (Geltokia p.; 23:00) / Bikoizten (Kasinoa; 23:00)
- **Uztailak 29, barikua: Gazte Eguna**
 - Gazte diana eta kalejira (Herrian zehar; 9:00)
 - Saharar herriarekin elkartzasun ekitaldia (Biotz Alai; 11:00).
 - Goitibehera jaitsiera (UK tabernatik Txosna Gunera; 12:00)
 - Bertsolariak (Kasinoa; 13:00)
 - Gazte bazkaria (Txosna Gunea; 15:00)
 - Eneko Caballero Futbol Txapelketa (Batzokia; 16:00etatik aurrera)
 - Elektrotzaranga (Txosnetatik; 20:00).
 - Jota eta arin-arin txapelketa (Teilagorri; 20:30)
 - Kontzertuak: Crazy Chains, Gose eta Estricalla (Geltokia p.; 23:00) / Duo Deno (Kasinoa; 23:00)
- **Uztailak 30, zapatua: Koadrila Eguna**
 - Iñaki Deuna Esku Pilota Txapelketa (Batzokia; 11:00)
 - Koadrilen aktuzioa (Geltoki p.; 12:00)
 - Haur ikuskizuna (Biotz Alai; 12:30)
 - Bertsolariak (Kasinoa; 13:00)
 - Koadrilen bazkaria (Geltokia p.; 14:00)
 - Herri Krosa (17:00)
 - Jaitsiera Tradizionala (Biotz Alaiatik hasita; 19:00)
 - Erromeria Gora Herria taldeagaz (Geltokia p.; 23:00)
- **Uztailak 31, domeka: San Inazio!**
 - Txirindula lasterketa (9:30)
 - Dantzari taldeen bilkura eta kalejira (Kasune; 11:30)
 - Meza nagusia (San Inazio; 12:00)
 - Bertsolariak (Kasinoa; 13:00)
 - Bertso bazkaria (Piper's; 14:00)
 - Bitsa festa (Biotz Alai; 18:00)
 - Bertso poteoa (19:00)
 - Larraidantza (20:30)
 - Kontzertuak: Never Surrender, Vendetta eta Bizardunak (Geltokia p.; 23:00) / Txakales Sound System (Kasinoa; 23:00)
- **Abuztuak 1, astelehena: Txipiak!**
 - Txipiroi lehiaketa (Biotz Alai; 8:30)
 - Gazteentzako tortilla txapelketa (Geltokia plaza; 11:00, izen ematea)
 - Anaitasun bazkaria (Txosna Gunea; 14:00)
 - Herri Kirolak (Zabala eskola; 17:30)
 - Dantza Plaza (Geltokia plaza; 21:00)
 - Erromeria (Geltokia p.; 24:00)

*Ez dago egitaraua osorik

Getxoberpiztu! > Wanted 2011 Ideia Lehiaketaren proiektu irabazlea

“Guztion artean espazio publikoa zelan erabili erabakitzeke aukera sortu gura dugu”



Getxoberpiztu! egitasmoa aurrera eroango duen taldeko zenbait kide

Hainbat diziplinetatik datozen gazteak dira, baina herriaren erabilpena bultzatzeko nahiak eta herria ulertzeko moduak alkarregaz behar egitera eroan ditu. Udalak antolatutako Wanted Ideia Lehiaketaren irabazleak dira Ane Abarrategi, Maddi Texeiro, Ion Etxabe eta Lur Moragues, **Getxoberpiztu!** proiektuagaz. Erabilpen barik dauden espazioak berrakibatatu eta gazte zein bizilagunak espazio horietan sortu gura dutena erabakitzera animatuko dituzte. Horretarako, gazteen arteko harreman sareak sortu eta espazioa guztiona dela sentiarazten saiatuko dira.

—Zergatik hasi zineten proiektuagaz?
—Getxon espazio publikoei dagokionez dagoen gainbeheragaz kezkatuta geunden; azken urteotan plaza barik egon gara, gazteriak txokoetara jotzen du... bateragune izan daitezkeen espazio publikoak bultzatzen ez direla ikusi da. Horrez gain, askotan lurzoru barriak kolonizatzera jotzen dela ikusten dugu, eraikitzeke edo bestelako espazioak sortzeko. Zentroan bertan dauden erabili bako espazio horiek ahaztuta gelditzen direla. Lurzoruarekiko kezka ere badaukagu;

hedatzen goaz eta erabili barik daukagunari ez diote garrantzirik ematen.
—Hortik abiatuta sortu zen egitasmoa.
—Lehiaketa ezagutzen genuen eta hori proiektua martxan jartzeko aukera bezala ikusi genuen. Gazteak inplikatzeko aukera da; badago antolatuta dagoen gazteriarren zati bat baina badaude antolatu barik dauden gazte asko eta horiek ere euren ekarpena egin dezakete.
—Zertan datza proiektua?
—Erabilera publikoa izan dezaketen baina erabili barik dauden orubeei erabilera

publikoa ematean datza. Horretarako, erabilpena definitzeko zein bideratzeko, prozesu parte hartzaile bat garatu gura dugu. Gazteak izango ziren aitzindari eta inguruko auzokideek ere parte hartuko lukete. Wanted-ek eskaintzen diguna hori aurrera eroateko bitartekoak dira.

«Espazio publikoei dagokionez dagoen gainbeheragaz kezkatuta geunden»

—Zer ikusi duzue aztertzen jarritakoan?
—Beste herrialde batzuetako esperientziak ezagutu ditugu. Hirigune turistikoa duen Alemaniako hiri batean, non biztanleek ez duten eurentzako bilgunerik, parking moduan erabiltzen zen orube bat hartu eta erabilera kolektiboa eman zioten. Mahaitxoak eta ahulkiak jarri zituzten, gauean zinema ikusteko pantaila... batzeko lekua egin zuten hiri erdian, Udalak eskaintzen ez ziena eta eurek sortu zutena.
—Getxon zein leku aukeratu duzue?
—Portu Zaharreko orube handiaren erabilera guztion artean erabakitzea, adibidez, ikaragarria izango litzateke; baina, hori bezala, badaude beste txikiagoak ere. Guk zerrenda bat eman dugu eta Udalak oniritzia eman behar digu.

—Zeintzuk izango dira pausoak?
—Erabilpena zehazteko zein prozesu parte hartzaile erabili aukeratu behar dugu. Orain proiektua ezagutarazten gaude; webgune bat egingo dugu ideia zabalatzeko eta parte hartzea bultzatzeko. Ondoren, martxan jarriko dugu.
—Getxoko gazteentzako mezurik?
—Guztion artean espazio publikoa zelan erabili erabakitzeke aukera sortu gura dugu; ohituta gaude espazioen banaketa eginda jasotzera, baina oraingoan geuk definitu eta eraiki gura dugu hori. ○

Herrien nortasuna

Folklore eta Dantza Jaialdiak afrikar eta euskal folklorea ekarriko ditu 21etik 23ra



West African Dance Ensemble taldea ikusi ahal izango da 21ean

“Herri bakoitzak sortu eta belaunaldiz belaunaldi igarotzen diren tradizio, legenda, ohitura, dantza eta abestiak izendatzeko erabiltzen da folklore hitza. Horrez gain, herri bakoitzaren nortasunari eusteko eta definitzeko balio izaten du”. Sarean bilatuz gero, hori da folklore berbari buruz aurkituko dugun definizioetako bat. Herri nortasunagaz lotzen da folklorea eta Getxon munduko bazterretako nortasunak gurera hurbiltzea helburu duen jaialdia ospatu ohi da aspaldi. Aurten, uztailaren 21etik 23ra hartuko du Biotz Alai plazak Getxoko XXVII. Nazioarteko Folklore eta Dantza Jaialdia.

Kolorez, kantuz eta dantza ikusgarritz osatutako emanaldiak gozatu ahal izango da hiru egunetan; izan ere, aurten, urtero euskal folkloreak erakusle izateaz arduratzen den Getxoko Itxartu Dantza Taldeagaz batera (barikuan), Afrikako talde bi hurbilduko zaizkigu: Togoko West African Dance Ensemble egunean eta Egiptoko Folklore Dance & Music Group zapatuan. Talde biek Afrikako folkloreak aniztasuna utziko dute agerian euren janzkera koloretsu eta dantzakaz. Emanaldi guztiak gaueko 21:00etan izango dira, doan.○

Info+: www.itxartu.com

IZEN EMATEA 2011-2012 KIROI IKASTAROETAN

2011-2012 denboraldirako kirol ikastaroen programa prest du Getxo Kirolakek. Denera, 5.000 plazatik gora eskainiko dira, 20 kirol-modalitate ezberdinetan. Barrikuntza bakarra taichi taldea izango da. Lekua erreserbatzeko eskubidea duten pertsonak abuztuaren 31 arte izango dute horretarako aukera telefonoz edo Fadura eta Gobelako bulegoetan. Aurten ikastaro bakarrean egin ahal izango da erreserba. Inskripzio barriak egiteko, irailaren 8a arte jendearen arretarako bulegoetan jaso ahal izango dira irailaren 9an egingo den zozketan parte hartu ahal izateko zenbakiak. Irailaren 14an hasiko da izen ematea.

Info+: <http://getxokirolak.getxo.net>

GOBELAURREKO LOKALAK ESKATZEKO EPEA

Uztailaren 22a arte egongo da zabalik Gobelaurre Boluntariotza Zentroko lokalak erabilpena lortu ahal izateko eskaerak aurkezteko epea. Eraikinaren helburua, euren jarduera herrian burutu eta euren gizarte-jardueraren oinarritzko garapenerako egoitza behar duten elkarteak laguntzea da. Aldi baterako egoitza, espazio komunak zein erabilera zehatzetarako lokalak behar dituzten elkarteak eskatu ahal izateko, Eusko Jaurilaritzako edo Getxoko erroldan erregistratuta badaude. Agiriak Udaletxeko erregistro orokorrean Herriarren Arretarako Bulegoetan edota Gizarte Zerbitzuetako egoitzan aurkez daitezke.

ERROTULUAK EUSKARAZ JARTZEKO LAGUNTZAK

Euskara Zerbitzuak ‘Zabaldutako euskararen atea’ kanpaina martxan jarri du bigarren urtez. Euren jardueraren testuak euskaraz jarri gura duten establezimendu eta langile autonomoei zuzenduta dago. Euskaraz edo elebitan jartzeagatik deskontua egiten duten enpresen zerrenda emateaz gain Udalak diru laguntzak emango ditu karteletan euskara erabiltzeagatik.

Info+: 94 466 00 10

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Agustin Martinez Tintxu > 'kalimotxo' izenaren sortzaileetako bat

“Adituek diotenez, urteko ardoa da egokiena kalimotxorako, baina gustuen arabera izango da”

Oso ezaguna egin da kalimotxoaren jatorriaren historia. Jaietarako edaritzat dauka askok, ez omen edari elegantea. Bada, Mendibile Ardo Akademiak merezitako maila aitortu gura izan dio eta kalimotxoari buruzko jardunaldia burutu du. Agustin Martinez ‘kalimotxo’ izenaren sortzaileak parte hartu du.



Uztailaren 13an egin zuten jardunaldia, elkarriketa honen ostean

—‘Kalimotxoa’ izena sortu ei zenuten eta haren barri eman duzu Mendibile Ardo Akademian, kalimotxorik onena egiteko ardo aukeraketan; zer sentitu duzu?

—Beno, *Kalimotxoaren benetako historia* liburuan jaso zuten historia hori eta ordutik askotan kontatu dugu hedabideetan. Iaz kalimotxo koktelen munduko txapelketa egin zen Gasteizen eta arrakasta handia eduki zuen. Urte asko da gaiari buruz hitz egiten, beraz, nahiko ohituta nago horrelakoetara.

—Kontatuko diguzu zuen historia?

—Zoriz sortu zen kalimotxoa Algortako Portu Zaharreko jaietan, 1972an. Auzokideak azaraz geneukan, festetan kalean beira asko zegoela eta arriskutsua zela. Txosnan saltzeko ardoa behar genuen eta Oionetik ekarri genuen plastikozko botiletan. Abuztuko beroaren erruz ardoa pi-

katu zen. Horregatik erabaki genuen freskagarri bategaz nahastea. Nagusiek esan zuten hori *Errioxa librea* edaria zela, baina hura ardo onagaz egiten zen eta gure edariak ardo pikatua zeukan. Horregatik izen bat asmatu behar izan genuen. Koadrilako bi berandu iritsi ziren txosna zabaltzera, Kalimero eta Motxongo, bien nahasketaz sortu zen ‘kalimotxo’ izena.

—Nolakoa da kalimotxo perfektua?

—Ardo apur bat eta kola freskagarria. Mendibilen aukeratu da kalimotxoa egiteko ardorik onena. Adituek diotenez, urteko ardoa da egokiena, baina gustuaren arabera izango da. Ardo hobeagaz kalimotxoa ere hobe izango da.

—Jardunaldian kata ere egin behar duzu, zer baloratuko duzu?

—Hainbat gauza baloratu behar dugu, baina ez naiz aditua. Gustatu ala ez, horren arabera puntuatuko dut. ○

Merkataritza “iraunkorra”

Leioako merkataritza **bultzatzeko egitasmoan** parte hartuko dute **74 saltokik**



Bizkaiko Aldundiak finantzatzeko du programa

Merkataritza Berde, Arduratsu eta Iraunkorra izeneko egitasmoa abiatu dute, herriko saltokiei zuzenduta, eta “*tokiko txikizkako merkataritza sustatzeko*” helburua dauka. Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu eta Prestakuntza Departamentuak sustatu du, CECOBIGaz eta hainbat udalakaz elkarlanean. Portugalete, Getxo, Balmaseda, Santurtzi eta Sestaon ere garatuko da. Leioako 74 saltokik parte hartuko dute eta urtebete iraungo du.

Aholkularitza eskainiko diete, saltokien “*jarrera lehiakorra hobetzen laguntzeko, eta betiere, merkataritza arduratsu eta iraunkor baten ikuspegitik, herritarren erosketa lehiatzeko*”. Aditu batek egingo

du jasangarritasun-ikuskapena: negozioa aztertu eta profesionalak elkarriketatu-ko ditu.

Hainbat neurri gomendatuko du saltokia jasangarriago bihurtzeko: kontsumo baxuko argiak ipini, elektrizitate indarra aldatu, iturriak konpondu jarioak ekiditeko edota leiho eta galdarak aldatu.

Arrasto ekologikoa txikitzeke neurriak ere proposatuko ditu: hondakinak birziklatu, atmosferari kalterik eragiten ez dioten produktuak erabili, etab. Neurriok ezartzeko urtebete izango dute saltzaileek eta diru-laguntzak eskatzeko aholkularitza jasoko dute. Saltoki Berdea ziurtagiria eskuratuko dute ondoren. ○

KANTIKAK FRANTZIAN ABESTUKO DU

Festival des Choeurs Lauréats jaialdian parte hartuko du Kantikak uztailaren 25etik 31ra. Frantziako Proventzan egingo dira bost kontzertuak, Vaison, Valence, Donzere, Sainte Jalle eta Saint Felicien hirietan. Nazioartean sariak jaso dituzten abesbatzarik onenak besterik ezin dute parte hartu jaialdian, eta aurten Kantika izango da horien artean. Svalhom Singer (Suedia), Coro Universitario de Mendoza (Argentina), New Israeli Vocal Ensemble (Tel Aviv) eta Kantika igoko dira oholtzara. Uda honetan galditu barik ibili dira kantari gazteak, Katalunian ere izan dira ekainean.

2011-2012RAKO IZEN EMATEA SAKONETAN

Aurten toki barik lotu zara? Gorputza astintzeko gogoz zabilta? Bada, dagoeneko izena eman daiteke Sakoneta kiroldegiko datorren ikasturtetako ikastaroetan parte hartzeko. Datorren irailaren 1ean hasiko dira ikastaro barriak, baina hasi aurretik eman behar da izena, ohiko legeaz. Horretarako hainbat data dago hil honetan, herritarren ezaugarrien arabera: bazkide barriek uztailaren 18tik 19ra egin behar dute, Leioako herritarrek uztailaren 20tik 21era, eta bestelakoek, 22tik aurrera. Kiroldegian bertan egin behar da eta ohiko ordutegiaren barruan, 8:00etatik 21:00etara.

Info+: www.leioa.net

JAIALDIA UDONDO GAZTETXEAN 29AN

Musika jaialdia antolatu dute Udondo Gaztetxean uztailaren 29rako. Arratsaldeko 20:00etatik aurrera Uribe Kostako eta nazioarteko hiru taldek joko dute Gaztetxeke oholtzan: Algortako Pornosaurio, Tenerifeko Gran Banda Mandinga eta Argentina-Bilboko Penadas por la ley. Sartzeko 4 euro ordaindu beharko da. Ondo pasa!

www.sindominio.net/udondogaztetxea

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA



Abant

Basarrate 20 Ionia 48991 (Algorta-Getxo) Tf. 94 404 91 65 - 656 70 31 61

- Psikopedagogia eta Eskola Orientazioa
- Ikaskuntzaren zailtasunak
(idazketa, irakurketa, ulermena, dislexia...)
- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza



Luberri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberri@euskalnet.net
www.luberri.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

[erandio]

Galina Raeda > Ukraina Gaztea elkartearen presidentea

“Txernobilgo umeei on handia egiten die etortzeak, osasuna hobetu eta kultura berria ezagutzen dute”

Ukrainarrak dira, Erandion eta beste zenbat herritan daude eta uda igaroko dute bertako familiakaz; Txernobiletik etorri dira 24 ume eta gazte, Ukraina Gaztea elkarteari esker. Galina Raeda da presidentea.

—Ukrainarra zara? Zer dela eta zabiltza zeregin honetan?

—Hemen bizi naiz, baina nire aita bilbotarra zen, Gerra Zibiletik Errusiara bidali zuten umetan. Berrogei urte ondoren itzuli ginen, Franko hil ostean. 1979tik bertan bizi naiz. Ukraina Gaztearen antzeko elkarre batean laguntzen nuen lehen, baina gero eta elkarre gehiago, hobeto. Horregatik sortu genuen Ukraina Gaztea 2007an. Umeak Txernobiletik datoz urtero, bi hilabetez, abuztu bukaera arte. Bizkaiko hainbat herritan daude.

—Zer on egiten die hona etortzeak?
—Medikuek aholkatzen dute umeak gutxienez 40 egunez irteteko erradiazio gunetik. Elikadura hobea jasotzen dute, defentsa asko berreskuratzen dute eta on handia egiten die. Oso zurbil etortzen dira, ahul, baina itzultzerakoan, gurasoek ere ez dituzte ezagutzen. Handik irtetzen direnak gutxiago gaixotzen dira, ez dute horrenbeste joan behar ospitalera. Osa-



Harremanetarako: ukraniagaztea@gmail.com edo 670 303 170

sunaz gainera, bestelako onurak dauzka etortzeak. Beste kultura eta bizimodua ezagutzen dute, adibidez, familien batasuna ezagutzen dute, beren familiak nahiko desegituratuta daude eta; behar gehien daukatenak datoz.

—Familiakaz egoten dira?

—Horixe da. Lehen urtean izaten da zailena, hizkuntza eta kultura desberdinak direlako. Baina gaztelera klaseak jasotzen dituzte eta apurka ikasten dute familiarik komunikatzen. Ondoren, idazten eta

irakurtzen ere ikasten dute. Harrera familiek ordaintzen dute bidaia eta hainbat bidetatik lortutakoagaz, dirua itzultzen dugu ondoren. Ekimenak eta irteerak egiten ditugu bi hilabeteotan. Datarren urtean umeak jaso gura dituztenek irailetik aurrera ipini behar dute gugaz harremanetan.

—Erakundeek laguntzen dute?

—Bai, udalen laguntza eskertu behar dugu, besteak beste, Erandio, Getxo, Bilbo edota Galdakaora datoz umeak. ○

Badatoz Astraduduko jaiak

Atzerako kontaketa hasi da, **abuztuaren 4tik 10era** ospatuko dituzte **sanlorentzoak**



Hamaika kontzertu eta ekimen izango da astebetez

Auzoz auzo, atsedenerako tarterik ez dago Erandion jaiei dagokienez, eta abuztuagaz batera iritsiko dira sanlorentzoak Astrabudura: hilaren 4tik 10era ospatuko dituzte auzoko festak.

Txupin-jaurtiketa ofiziala arratsaldean izango bada ere, umeek ere egingo dute beren txupinazoa abuztuaren 4ko goizean, 11:30ean. Pregoia 20:15ean izango da, koadrilen jaitsieraren ostean. Lehen egunetik gozatu ahalko da musika, gaueko 22:30etik aurrera kontzertua eskainiko dute Sfinter, Gritando en silencio, Dj Mangas taldeek.

Biharamunean umeentzako jolasak,

aparra eta puzgarriak izango dira goizean, eta Gynkhana zein San Lorentzo Futbol Txapelketaren finala arratsaldean. Gaueko 22:30ean Keman Kaya, Parpadeo, Ze esatek! taldeek joko dute.

Zapatuan, barriz, abuztuaren 6an, marmitako txapelketa eta idi-probak egingo dituzte, besteak beste. Gauean bilbainadak eta kontzertuak izango dira; Staun eta Hora Zuluk joko dute. Domekarako utziko dituzte sukalki txapelketa eta play-back lehiaketak, eta astelehenerako kanoen olinpiada, pailazoak edota Karinaren kontzertua. Abuztuaren 10ean bukatuko dira jaiak, San Lorentzo egunez. ○

HAPN-K ZINEGOTZIGO PROPIOA IZANGO DU

EAJko zinegotziek bakarrik osatuko dute Udal-gobernua legegintzaldi honetan eta barritasunik badakar, izan ere, HAPN hiri-antolamendurako plan nagusia eguneratzeko zinegotzigoa sortu du; Asier San Nicolas izango du buru, orain arteko Hirigintza zinegotzia. HAPNri behin betiko bultzada eman gura ei diote horrela. Ogasuna eta Hirigintza Egitasmo Handien Garapenerako arloetako buru ere izango da San Nikolas, sail barriak horiek ere.

JAIK IZANGO DA GAIA ARGAZKI LEHIAKETAN

Erandioko argazki lehiaketaren V. edizioa hasi da eta irudiak aurkez daitezke irailaren 30era arte. Aurten Erandioko jaiak 2011 izango da argazkietarako gaia, edozein auzotako festetako irudiak egin daitezke. Edozeinek parte har dezake, baina gehienez, hiru argazki aurkez ditzake, bai koloretakoak, bai zuri-beltzekoak. Postaz bidal daitezke edota zuzenean eroan Kultura sailera eta Astrabuduko Udal bulegora (Mezo kalea, 20). Bost sari emango dituzte, 50 euro eta 450 euro artekoak. Aurkeztutako argazkiak erakusketa egin lezake Udalak ondoko datetan: urriaren 24tik azaroaren 11ra Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean, eta azaroaren 14tik 25era Udaletxeko Erakusgelan (Altzaga). Hartu kamera eta irten parradara!

Info+: www.erandio.net

MOTORRAK BILDUKO DIRA AKARLANDAN

Harley moduko motorra daukazu garajea? Gogoko dituzu? Astrabuduko koadrila bat aspaldi da zaletua eta Moto Kluba sortu zuten orain urte batzuk. Irteerez gain, motorren kontzentrazioak eta beste antolatzen dute, eta Akarlandan ipini dute hurrengo hitzordua, uztailaren 22an eta 23an. Astrabu Club Motorren 4. kontzentrazioa izango da. Dagoeneko entzun daitezke motorren orroak...

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak

Sagastikoetxe Industrialdea
Etxalde 2 - Pabiloi 11
48630 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144

<http://www.etxeart.com>

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

IGOGAILUAK
ARLAN
ASCENSORES

Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

www.arlan.biz

OLARRA-UGERAGAKO
AITOR REY, TXAPELDUN!

Olarra-Ugeraga txirrindulari taldeak beste sari bat eskuratu barri du Aitor Rey txirrindulariari esker. Tafallako belodromoan ospatutako proban, gazteak pistako puntuazioan urrezko domina eskuratu zuen. Pertsekuzio espezialitatean, gainera, beste domina bat irabazi zuen Reyk: zilarrezkoa, kasu honetan. Olarra-Ugeragak, beraz, sariak irabazten jarraitzen du, azken asteetan taldeko beste txirrindulari batzuek oso maila ona erakutsi baitute: Jon Astondoa, Ander Olmeda, etab.

UDAKO MUSIKA ZIKLOA
ETA PELIKULAK KALEAN

Musika eta zinema izango da uztailean Sopelan, Kultur Etxeak antolatutako egitarauari esker. Uztailaren 25etik 29ra Udako Musika Zikloa izango da Kurtzion, 20:00etan. Sarrera doan izango da. Bestalde, ‘Ilargipeko Zinema’-gaz jarraitzen dute sopeloztarrek. Uztailean beste saio bi izango dira, biak ala biak gazteleraz: uztailaren 23an *A tres metros sobre el cielo* izango da ikusgai, eta 30ean, barriz, *Aprendiz de brujo*. Emanaldiak udaletxe plazan egingo dira, gaueko 22:00etan.

JAIETAKO IRABAZLEAK:
JOSU-LANDER, TXALOKA
ETA GAZTE ASANBLADA

Txosna batzordea pozik agertu da Sopelako jaietan izandako giro paregabeagatik. Koadrilek gogotsu parte hartu zuten, eta antolatutako txapelketetan hainbat sari banatu ziren. V. Eskupilota Txapelketan Josu eta Lander bikote algortarrak iazko bikotea irabazi zuen. Txosna apaingarrienaren saria, barriz, Gazte Asanbladaren txosna mitikoak irabazi zuen barriro, “*Belar txarrak mozten!*” leloagaz. Tortilla txapelketari dagokionez, bederatzia aurkeztu ziren eta Txaloka koadrila izan zen txapelduna, antolatzaileen arabera, bederatzia goxo-goxoak zeuden arren.



Mundu zabaletik **dantzan!**
Nazioarteko Dantza Jaialdira Mexikotik
eta Kalmukiatik etorriko dira, **uztailaren 24an**



Larrabasterrako Urgitxeta plazan izango da dantza jaialdia

Jaien ostean badago zer egiterik Sopelan. Nazioarteko dantzariak hartuko dute Larrabasterrako txosnetan dantzan aritu direnen lekukoa. Uztailaren 24an Nazioarteko Dantza Jaialdia izango da Urgitxieta plazan (euria badago, Urko kiroldegian), 20:30ean. Bertan hiru taldek hartuko dute parte: Galdakaoko Andra Mari dantza taldea, Mexikoko Zacatecas Folklore taldea eta Kalmukiatik Tulpan taldea.

Hiru taldeek Galdakaoko Folklore Bizian parte hartu barri dute eta bertako antolatzaileen arabera, euren dan-

tzaldiak ikusgarriak dira. Tulpan taldea Kalmukiakoa da, Errusiako Federazioaren menpe dagoen errepublikakoa, hain zuzen. ‘Oirats’-eko musika-kultura dute oinarri, Errusiako kulturak euren dantzetan eragina izan badu ere. ‘Dombra’ instrumentu tradizionala izango dute lagun, eta euren jantzietan sustrai budistak iger daitezke. Bestalde, Zacatecas taldea izen bera duen hiritik hurre-ratuko zaigu. Euren dantzetan Mexikoko herrialde ezberdinen errealitateak irudikatzen dituzte, maitasun kanta eta abesti iraultzaileen bidez. ○

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

Felix Mugurutza > Sopelako toponimia maparen zuzendaria

“Herriarrek mapa eratzeko prozesuan parte hartu dute eta oniritzia eman diote”



Gorlizko toponimia mapa udazkenean aurkezteko asmoa dute

Sopelako toponimia batzen duen mapa aurkeztu zuten ekainean. Felix Mugurutza audioarra eta Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeko kidea izan da lanaren zuzendari teknikoa.

—**Sopelako toponimia-mapa eratu duzue. Zertan datza zehazki?**

—Toponimia ikerketa bat egin da eta lan hori islatzeko modurik onena edo errazena mapa bat egitea izan da. Bertako toponimia mapan txertatzen joan gara. Azken finean toponimia herri baten historia liburua da, herriarrek egin dutena. Garrantzitsuak izan dira prozesuan egin diren erakusketak, herriarrek parte-hartu dutelako eta horixe izan da gakoa. Alde batetik, zuzenketa nahikotxo egin delako kokapenetan. Herriak datuak biltzean azaldu dizunak agian ez daki ondo azaltzen. Bestetik, zilegitasuna ematen dio mapari, herritarren oniritzia baitu. Eta gainera, erakusketak ekitaldi kultural bihurtu dira, eta jendeak oso pozik parte hartu du proze-

su horretan eta horren partaide sentitu da. 7000 mapa banatu dira, ez genuen artxibategi batean gordeta izan nahi, eta oso harrera ona izan du.

—**Ikerketen arabera, euskara jatorrean zelan esaten da, ‘Sopela’ edo ‘Sopelana’?**
—Min handiz mapan Sopelana jarri behar izan dugu, hori ofizial bakarra delako, Udalak horrela erabaki zuelako. Baina gero Euskaltzaindiak eta errealitateak Sopela izen zuzena dela esaten digute: Sopelabaso, euskaldun guztiek Sopela

«Euskaltzaindiak eta errealitateak ‘Sopela’ izen zuzena dela esaten dute»

erabiltzen dute... Hori araua da gainera Euskaltzaindian. ‘Sopelanako’ gramatikalki gaizki dago, astakeria da, baina gero aurreko Udalak esaten zuen horrela nahi zuela eta erabaki hori bere esku dago, legeak horrela markatzen duelako. Baina Akademiak oso garbi utzi du betidanik: euskarazko izena Sopela da. ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

**Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana**

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturbarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

**ANDER
DEVNA
IKASTOLA**

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

SANTA ANA JAIETAKO EKITALDI BATZUK

Uztailak 23, zapatua
 11:00 Pregoia Berangoetan eta kalejira Santa
 Anaraino Orabai batukadagaz
 11:45 Berangoko I. Herri Krosa
 18:00 EHko sokataria txapelketako jardunaldia
 18:30 Herri-kirol jolasak
 19:30 Pilota partiduak, finalaurrekoak
 20:30 Buruhandi txapelketa herrikoia
 23:00 Suzko zezena
 23:00 Kontzertuak: Astindu eta Governors

Uztailak 24, domeka
09:30 Plater tiraketa
11:30 Saharagaz elkartasuna
12:00 Margolaritza tailerra
18:00 '3, 2, 1, *zast!* *Egizu jolas!*' antzerkia
20:00 Bertso saioa: Jexux Mari Irazu, Sustrai Colina, Itxaso Paya eta Beñat Ugartetxea
22:00 Kontzertuak: The Caravan's, Vendetta eta Triki ta ke erromeria

Uztailak 25, astelehena
 11:00 Txirrindulari lasterketa
 18:30 Tai-chi erakustaldia
 19:30 Sokatira txapelketa herrikoia
 20:00 Sardinada eta sagarro kupelak
 20:00 Haurrentzako disko festa

Uztailak 26, martitzena, Santa Ana eguna
 13:00 Haur dantzaldia eta nagusientzako
 hamaiketakoa
 17:00 Haur jolasak: pitarra, ludotxiki...
 19:30 Tor Magoaren magia ikuskizuna
 21:30 Dantza plaza: Erdizka Lauetan



Koloretsuak eta **herrikoiak**
Kukullaga Jai Batzordeak antolatuta, 23an
 hasi eta 26an bukatuko dira **Santa Ana jaiak**



Herriko elkarteek eta auzokideek parte hartu dute Jai Batzordean

Pailazoan sudur gorria, futbol zelaia-
ren berde bizia, sagardoaren hori min-
gotsa, bitsa festaren zuri ikusgarria...
aurten Berangoko jaiek hamaika kolore
ezberdin izango dituzte. Hori da
Kukullaga Jai Batzorde barriak irudika-
tu gura izan duena: herritik eta herria-
rentzat egindako jaiak, ostadarreko
kolore danakaz osatuta. Horretarako,
herriko kultur eta kirol taldeen parte-
hartzeari bilatu dute egitaraua osatzeko
orduan. Herriko musika talde gazteek
ere kontzertua eskaintzeko aukera izan-
go dute. Baina egitarauari txapela jartze-

ko, ezinbestekoa izango da berangoztarrek jaietan parte hartzea, Kukullagakoek adierazi duten legez, ekintza gehienetan herritarrak izango baitira protagonista nagusiak.

Santa Anako jaiak uztailaren 23tik 26ra ospatuko dira aurret. Barraketako haurren eguna, barriz, uztailaren 27a izango da. Jai Batzordearen eta barrakeroen arteko akordioari esker, kartelak euskaratu eta euskal musika jarriko dute barraketan. Kartelari dagokionez, Berangoeta Kultur Etxeko pintura taldea izan da aurtengo egilea. ○



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

E. Anitua eta A. Arrieta > *Ganorazko sexu asko gida*

“HIESA igo da gazteen artean,
kondoia ez erabiltzeagatik”



Herriz herriko gida eratu dute, betiere Mankomunitatearen erreferentzia hartuta

Mankomunitateak *Ganorazko sexu asko gida* kaleratu barri du, prebentzioa eta sentsibilizazioa bultzatzeko. Aiora Arri eta eta Estibalitz Anitua Drogamenpekotasun eta Berdintasun teknikariak arduratu dira gida eratzeaz. Orain, herritarrek hartu beharko dute lekuko!

—Zer aurki dezakegu gida horretan?

—Gure asmoa 14 eta 35 urte bitarteko gazteengana heltzea da. Sopelako gazte bulegoko teknikariek batu ginen eta kezka agertu zen, adibidez, kondoia gero eta gutxiago erabiltzen delako, eta gero eta gehiago, ordea, hurrengo eguneko pilula. Pilula horrek neskengan bigarren mailako ondorioak sortzen ditu, hormona-bonba bat da. Eta gainera, ez die transmisio sexualeko infekzioei aurre egiten. Gidaren bidez hainbat mito argitu nahi ditugu.

—Helburua, beraz, informazioa ematea da...

—Sentsibilizazioa eta prebentzioa bul-
tzatu nahi dugu. Jendeak informazioa
edukitzea da helburua. Farmazia eta osa-
sun zentroekin batu gara, eta oso harre-
ra ona izan dugu. Jaietan, farmazietan,
ikastetxeetan... banatzen ari gara. Gidan
honako informazioa agertzen da: anti-
sorgailuak non lortu (Plentzian estanko-

«Hurrengo eguneko pilulak bigarren mailako ondorioak sortzen ditu»

an, adibidez), zalantzak... Mito asko da-
go, kondoa ez erabiltzeagatik dirudi ez
dela ezer gertatzen. Baina HIESA, hepa-
titisa... dago. Orduan, gazteek sexua
izango dutenez, batez ere udan, jaiak,
hondartzak daudenez... kondoa erabili
behar dela diogu. Gero eta gutxiago era-
biltzen denez, HIESA gazteen artean igo
da, bai harreman heterosexualen bai
homosexualen. ○

aldar

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

OSTAIDE HORTZ KLINIKAK
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



Torrene 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati
OPARIAK MODA GAZTEA



Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketara orokorrak
- Mantentze garbiketara
- Garbiketara industrialak
- Itsasontzi garbiketara
- Ospital garbiketara
- Elkagai Industriak igienizatzea,
- garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak
- eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerre (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

MADALENA, SAN INAZIO, SARATXAGA... PLENTZIAN!

Jairik jai jarraitzen dute Plentzian, San Antolin heldu arte aspertzeko tarterik izan ez dezagun. Uztailaren 21ean helduko da Madalena, hurrengo egunean koktelak eta uztailaren 23an Madalentxuak. Saratxagaren txanda helduko da uztailaren 29an, eta egun bi beranduago, barriz, San Inazio jaiak. Herri-bazkariak, erromeriak, dantzak, pailazoak... Ondo etorri Plentziako jai maratoina!

GAZTE-ZIRKUITUA ABIAN DA, EMAN IZENA!

12 eta 18 urte bitarteko gazteek tailer ugaritan parte hartzeko aukera izango dute hurrengo hilabeteetan: txalaparta, barreterapia, sukaldaritza, dantza afrikarrak. Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren bitartez, Urduliz, Lemoiz, Gorliz, Sopela eta Plentziako Udalek Gazteentzako Zirkuitua antolatu dute. Izen ematea tailerra izan baino hamar egun lehenago amaituko da. Hurrengo ikastaroa graffiti tailerra izango da, Lemoizen, uztailaren 30ean, 17:00etan.

Info+: www.uribekosta.org/eu

AIMARREN ALDEKO TAPOI BILKETA URDULIZEN

Urduliztar batek plastikozko tapoiak batzeari ekin dio Aimar bere semea laguntzeko asmoz. Aimarrek garun-paralisia du, eta batutako diruagaz tresna ortopedikoak erosiko dituzte. Urdulizko Udalak plastikozko tapoiak batzeko hiru gun e jarri ditu (udaletxe, kultur etxe eta kiroldegian).

GORLIZ

Azokak, txapelketak eta giro jatorra santiagootan!



Uztailaren 23tik 26ra ospatuko dituzte aurten Santiago jaiak

Lau egunetako egitarau potoloa izango dute aurten Gorlizko Santiago jaiak, uztailaren 23tik 26ra. Herri-bazkariak emango die hasiera ospakizunei eta sabelak bete ostean etorriko da txupinazioa, 19:45ean. Koadrilen jaitsiera egin eta XVII. Habanera eta Euskal Polifonia Jaialdia izango da egun horretan. Uztailaren 24an XXV. Eskulangintza Azokaren eta XXXIII. Makailo Txapelketaren txanda helduko da. Gauean, barriz, Nazioarteko Folk Jaialdia antolatu

dute. Santiago egunean XXIII. Nekazaritza Azoka izango da, goizeko 10:30etatik aurrera. Egun horretan kalejira egin eta baserritarrez jantziko dira gorliztarrrak. Arrastian playback txapelketa egingo dute koadrilek.

Azken egunean, 17:00etan, dantza zaleek IV. Zortziko Txapelketa ikusteko aukera izango dute. Ondoren, 20:30ean, bertso saio ederra egongo da: Arkaitz Estiballes, Anjel Mari Peñagarikano, Iker Zubeldia eta Peru Vidal. Ondo pasa! o

Uzt. 18 - Abu. 1

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

LEIOA

► **Ezkontza.** Kultur Leioan. Uztailaren 24ra arte. Doan.

PLENTZIA

► **Jose Carlos Rodriguezen margoak.** Goñi Portalen. Uztailaren 29ra arte.

GORLIZ

► **Pintura lehiaketaren margoak.** Erakusketa aretoan. Uztailaren 30etik abuzturen 3ra.

ANTZERKIA

BERANGO

► **Tor magoa.** Santa Ana jaiak. Uztailaren 26an, 19:30ean.

MUSIKA

ERANDIO

► **Folklore jaialdia.** Altzaga kiroldegian. Uztailaren 21ean, 19:30ean.

GETXO

► **Nazioarteko Folklore Jaialdia.** Algortako Biotz Alai plazan. Uztailaren 21etik 23ra, 21:00etan. Doan.

► **Moby Dick, Kop eta Zea Mays (San Inazio jaiak).** Algortako Geltokia plazan. Uztailaren 28an, 23:00etan.

► **Crazy Chains, Gose eta Estricalla (San Inazio jaiak).** Algortako Geltokia plazan. Uztailaren 29an, 23:00etan.

► **Never Surrender, Vendetta eta Bizardunak (San Inazio jaiak).** Algortako Geltokia plazan. Uztailaren 31n, 23:00etan.



Torrene aretoan ipini dute erakusketa (Torrene, 3)

► Erakusketa

ERTIBIL Bizkaia 2011 erakusketa Algortan

ERTIBIL ikus-artearen erakusketa ibiltaria iritsi da Uribe Kostara, Getxoko Algorta auzora, hain zuzen. Torreneko aretoan ikus daiteke uztailaren 31 arte, doan. Bizkaiko artista gazteen ekimen sortzaileak bultzatu gura dituzte egitasmo honegaz, baita lurralde historikoan sormen-jarduea garatzen dutenena ere, bakoitzaren ibilbide artistikoaren lehen urratsetan. Erakusketan 17 artisten lan bana ikus daiteke, eta horietan, baleunaldi barrien sormen kuspegia ere bai. Astelehenetik barikura 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara bisita daiteke; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta domekatan, 12:00etatik 14:00etara.

• **Non:** Algortako Torrene aretoan • **Noiz:** Uztailaren 31 arte

GORLIZ

► **Betagarri.** Iberrebarrin. Uztailaren 22an, 22:30ean.

PLENTZIA

► **Zuzendari abesbatza.** Eleizan, Uztailaren 23an, 20:45ean.

BERANGO

► **Astindu eta Governors.** Santa Ana jaiak. Uztailaren 23an, 23:00etan.

► **The Caravan's, Vendetta eta Triki ta ke.** Santa Ana jaiak. Uztailaren 24an, 22:00etan.

LEIOA

► **Gran Banda Mandinga, Penadas por la ley eta Pornosaurio.** Udondo Gaztetxean. Uztailaren 29an, 20:00etan. 4 euro.

ZINEMA

ERANDIO

► **Esta abuela es mi padre.** Astrabuduko Josu Murueta plazan.

Uztailaren 22an, 22:00etan. Doan.

► **Medianoche en Paris.** Altzagako Irailaren 23a plazan. Uztailaren 29an, 22:00etan. Doan.

SOPELA

► **Kameratoia: lanen emanaldia eta sari banaketa.** Kurtzio Kultur Etxean. Uztailaren 23an.

► **3 metros sobre el cielo.** Udaletxeko plazan. Uztailaren 23an, 22:00etan.

► **Aprendiz de brujo.** Udaletxeko plazan. Uztailaren 30ean, 22:00etan.

BESTEAK

SOPELANA

► **Sopesex.** Kurtzio Kultur Etxean. Uztailaren 26an, 18:00etatik 20:00etara.

ERANDIO

► **Aisialdiaren terrazak.** Josu Murueta eta Irailaren 23a plazetan. Uztailaren 29ra arte.

► **Motorren kontzentrazioa.** Akarlandan. Uztailaren 22 eta 23an.

GETXO

► **Udako liburutegiak/ Letren terrazak.** Areetako Geltokia eta Andra Mariko La Borobia plazetan abuztuaren 26ra arte, eta Algortako Geltokia plazan irailaren 2ra arte.

► **Bertsolariak (Algortako jaiak).** Kasino plazan. Uztailaren 29tik abuztuaren 1era, 13:00etan.

GORLIZ

► **Epicentro Poético** liburuaren aurkezpen-errezitaldia. Altzagako erakusketa aretoan. Uztailaren 29an, 20:00etan.

► **Pintura lehiaketa.** Uztailaren 30ean, egun osoan zehar.

BERANGO

► **Bertso-saioa.** Santa Ana jaiak. Uztailaren 24an, 20:00etan.

OINUTSIK
KONSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net

OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROZKEO edota BEROTZKEO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA


BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz

ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



[albuma]



La Parraren heriotza

Plentziar auzokide bati esker jakin genuen *La Parra* eraikin ezaguna eraitsi behar zutela eta gure argazkilariak harrapatu ditu irudiok. Plentziako metro geltokiaren aurrean zegoen eraikina, Zabala jatetxea izandakoaren edifizioa. “*Erortzeko zorian*” zegoela-eta bota dute, baina bertan bizi zen familia kaleratu dute aurretik. Egoera benetan zaila eta larria. Orain aparkalekua eta autobus geltokia egingo ei dituzte.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Pijama-borroka

Boxeo Algortako
Portu Zaharrean

Badira urteetan zehar galtzen ez diren ohiturak. Horietakoa da, adibidez, Algortako Portu Zaharreko jaietako 'pijama eguna'. Lotsak alboratu eta pijama edo kamisoia janzen dute gazte eta ez hain gazteek egun horretan. Pijama egunean marmitako lehiaketa egiteaz gain, boxeo txapelketak ere egiten ziren bere garaian. Argazkian, 'Urtain-txiki' bi ikus ditzakezu kolpeka, pijama soinean dutela. Ohitura hori galdu da, edo bai behintzat, bere zentzu ofizialean. Ia jaietan K.O. askorik ikusten ez ditugun!

GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

[berbetan]

Presaka, nekatuta. Trenetik jaitsi eta taxia hartu behar izan du Garbi Losadak (Algorta, 1959) gurekin nebaren tabernan zuen hitzordura heltzeko. Hemendik hara, lan eta lan. Horrela ibiltzeak nekatzen badu ere, bere pasioa eta bizioa den antzerki munduan aurrera egiteko beharrezkoa du erritmo hori. Gidoigilea, telebistako aktore zuzendaria, eszena zuzendaria, aktorea... eta horrez gain, nebagaz batera sortutako Ados konpainia aurrera ateratzeko enpresa munduko mila eta bat kontutan ikasia. Ilusioz beterik egin digu berba taula gaineko algortar petoak.

Garbi Losada

Betiko algortarra, betirako antzerkigilea

Testua: **Maitane Nerekan** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Garbi Losadaren Curriculum zabalduz gero zuzendaria, gidoilaria, aktorea... denetarik aurki dezakegu. Baina nondik dator kio Garbiri antzerkirako pasioa?

—Algortako lehenengo ikastolan hasi ginen, etxerik etxe, 12 inguru ginenean. Hor hasi ginen antzerki lantxoak prestatzen. Gero ni Donostiara joan nintzen pedagogia ikastera eta antzerki lanak prestatzen hasi nintzen. Han Ttanta taldea sortu genuen. Ttantan Koldo, neba, eta biok egon ginen 11 urtez. Gero, Ados sortu genuen. Koldorekin batera hasi nintzen Ados taldean ere.

—Hainbat urte eman dituzu antzerki munduan; zure antzerkirako pasioa aldatu da?

—Ez da aldatu, baina lana eta adina nabaritzen ditut, nekatuta nago. Gustatuko litzaidake Bonolotoa irabaztea eta antzerkia egiten jarraitzea baina amateur moduan. Bizimodu bezala oso gogorra da, eguneroko ogia hortik atera nahi baduzu. Bestela, lana, bokazioa, pasioa... ez dakit zer den. Gaur bilera bat eduki dugu eta batzuk nahiko zaharrak gara. Lan-arriskuen prebentzioaren

ingurukoa zen bilera, orain antzerkian ibiltzeko ikasi beharreko beste gauza bat. Nik zera esaten nuen: ez dut ezer gehiago ikasi nahi. Antzerkia egitea asko gus-tatzen zaigu, baina beste gauza horiek... Gainera, gero eta burokrasia handiagoa pasa behar da; ez antzerkian bakarrik, arlo guztietan. Ni nekatuta sentitzen naiz askotan.

—Ibilbide luzea eta hainbat sari. Zerbaiterako balio dute sari horiek guztiek?

—Pozik jartzeko. Gorazarrea da, baina horretaz aparte ezer gutxi. Gure lanean,

etxean. Aixé Getxo! Saria, hain zuzen ere.

—Niretzat oso inportantea izan zen, etxean zelako. Donostian 30 urte daramatzat. Baina aita, hilda dagoena, beti: “*De dónde eres? De Algorta de toda la vida*”. Gainera, saria jaso nuen egunean bere urtebetetzea zen.

—Zurea aktore familia da, ezta?

—Bai; Koldo, neba. Neba txikia hasi zen baina gero utzi zuen. Bego aitak idatzi du, baina berak esaten du ezetz

—Kutsakorra da pasioa ala guztiei sortu zaizue berez?

“Algortako lehenengo ikastolan hasi nintzen antzerkian, 12 inguru ginenean”

ikuskizun bakoitza berria da;egin deza-kezu arrakasta handia duen bat eta hurrengo ez du bat ere arrakastarik. Eta berriz hasi behar zara. Sariak... etxean jarrita ondo geratzen dira baina... horretarako balio dute soilik eta ama pozik geratzeko.

—Azken saria Getxon jaso zenuen,

—Bai, kutsakorra da. Nire semeek esaten didate ez dutela antzerkirik egingo. Nik ondo hartzen dut, oso ondo. Txikiak esaten du polizia izan nahi duela baina amak ez diola uzten. Beste gauza batzuk izango dira.

—Elkarrizketa batean aipatu zenuen antzerkian gauza askok dutela eragina:

egoera politikoak, hauteskundeek, eguraldiak... momentu honetan zerk eragiten du gehiago eguraldiak ala hauteskundeek?

—Ez dakit, denak. Orokorrean ez dago ondo. Lehen esaten genuen arazoa publikoarekin genuela, baina orain garai txarrak dira orokorrean. Krisia... asko nabaritzen ari da. Guk antzerki publikoak egiten ditugu eta orain ez dago dirurik. Beste kasu batzuetan emanaldiak egiten ditugu, baina ez digute ordaintzen, zor asko daude.

—Antzerkigileak *“sortzera behartuta”* zaudetela esan zenuen beste elkarriketa batean. Zelan bizi duzu hori?

—Orain oso nekatuta nago, gaur batez ere, baina azken boladan orokorrean. Epeak ditugu, diru-laguntzak. Alde bate-tik, sormen prozesua dago eta hori beti dago oso... horrek kontraesana sortzen du. Niri gestio lana tokatzen zait, baina ikuskizunak neuk ere sortzen ditut. Batzuetan gauean etxera bueltatzen naizenean, neka-neka nagoenean, orduan idatzi behar dut. Eta idatzi behar dut epea amaitzen delako. Zaila da... zaila da dena.

—Inspirazio barik lan egin behar orduan?

—Inspirazioa? Nik ez dakit hori zer den. Ez dakit nork jakingo duen, baina nik ez. Orain, *El nombre de la rosa* eta *Wilt* lanak egingo ditugu. Nik gogoak ditut, denok dauzkagu, ikuskizun berriak sortzeko. Baina askotan ez dugu egiten guk nahi duguna. *Emotikon* lana sortu genuen, niretzat oso ikuskizun berezia eta berri-tzailea izan zena. Baina saltzeko oso zaila izan da. Lan komertzialagoak egin behar dira. Inspirazioa eta bizitzeko beharrak askotan ez doaz elkarrekin.

—Euskal antzerkian lan komertzialak bultzatzen dira?

—Autore lana ez da erosten eta publikoa ez doa. Jendea aurpegi ezagunak ikustera joaten da eta programatzaileek dirua nahi dute. Jendeak entzuten du: *“Garbi Losa-*

daren testu bat”. Ni ere ez nintzateke joango. *“Umberto Ecoren testua”*, orduan bai. Bermea ematen du. Euskal Herrian bezala, hemendik kanpo ere berdin daude. Baina aldatuko da, zikloak dira. Beste garai batzuk bizi izan ditugu. Baina orain... lan komertzialak. Komertzialak ez du zentzu negatiboa izan behar. Baina guri *Emotikonekin* gertatu zaigun bezala,

“Inspirazioa eta bizitzeko beharra askotan ez doaz elkarrekin”

horrela ez bada erosi behar dutenek ez dute hartzen. Ez dakite nola saldu. Guk adibidez *La guerra de los Rose* asko saltzen dugu.

—1994an sortu zenuten Ados Antzerki taldea. Zelan sortu zen?

—Ttantakan 11 urte egon ginen eta “dibortzioa” bizi izan genuen. Ni joan nintzen eta nire nebak nirekin etortzea erabaki zuen. Bi ginenez Ados izena jar-tzea erabaki genuen. Orain gehiago gaude. Ibilbide ona izan dugu. Gure hel-buruak oso txikiak ziren hasi ginenean, soldata txikia lortu nahi genuen. Hasi ginenean, inork ez zuen proiektuan sinis-ten; ez zirela talde gehiago behar esaten ziguten. Guk esan genuen: *“taldea sortu egingo dugu eta kitto”*. Eta ondo joan zaigu. Normalean ikuskizunak ondo joan

“Ez dira konpainia berriak sortzen gazteei alde enpresariala oso urrun gelditzen zaielako”

dira; batzuk besteak baino hobeto, baina gehienetan ondo.

—Antzerki munduan hasi berria dena euren konpainia sortzera animatuko zenuke?

—Bai, baina ez dakit zergatik, baina ez dira konpainia berriak sortzen. Nik uste dut zaila egiten dela alde enpresariala

aurrera eramatea, asko eskatzen baitu. Gazteak horretatik oso urrun sentitzen dira; geu ere bai, baina gurpilean sartuta gaude jadanik. Gu hasi ginenean erraza-go zen taldeak sortzea; orain enpresa mailako lan asko egin behar duzu. Gaur lan arriskuei buruzko bileran hainbat gauza aipatu dizkigute. Edozein plazatan lan arriskuen inguruko kontratua egin

behar duzu, langile guztiak babestu. Irakaslea katalana izan da eta ikusi dituen istripu guztiak deskribatu dizkigu. Ai ama! Argazkiak eskaini dizkigu. Ez, eske-rrik asko. Esaten zigun: *“Lasai egon, gehie-netan ez da ezer pasatzen”*.

—Orokorrean zelan ikusten duzu Euskal Herriko antzerki eta zinearen egoera?

—Lan egiten duen jende asko dagoela uste dut, ondo lan egiten dutenak gaine-ra. Baina ez dago industriarik hori guztia sustengatzeko. Ikus-entzunezkoetan adi-bidez, teknikari euskaldunek fama handia daukate, baina ez dago ikus-entzunezko industriarik. Antzerkian antzekoa gerta-tzen dela uste dut. Bestalde, Euskal Herrian lan egitea bakarrik... oso txikia da. Kanpora irten behar gara. Jende asko kanpora begira bizi da, kanporago orain-

dik. Hala ere, beste asko baino askoz hobeto gaude.

—Zerbaitetan ezberdintzen da euskal antzerkia Espainiar Estatukoarengandik edo munduko beste txokoetan egiten denarengandik?

—Ez dut uste. Nahiko berdinak gara ia-ia guztiak. Tamainagatik ezberdintzen da

gehiago. Badago antzerki txikia egiten duena, jende talde txikientzat. Beste bat-zuek lan handiak egiten dituzte. Eta gero badaude enpresa handiak eta “super komertzialak”. Edozein tokitara zoazela azken horiek aurkitzen dituzu. Egiteko era da desberdintzen gaituena. Hemen kartel buru ezagunekin lanean hasi gara, lanak mugitu ahal izateko; bestela inork ez zaitu deitzen. Lehen lan bat gustokoa bazen Estatu osoko zirkuituetatik dei-tzen gintuzten. Orain, hemen ere ez gai-tuzte deitzen. Ez gaituzte deitzen beraiek ere ez dutelako jendea antzokietara era-maten. Guk orain *Wilt* aurkeztuko dugu eta hasteko euskarazko bertsioa kaleratu-ko dugu soilik. Batzuetan gertatzen da bertsio biak batera ateratzen baditugu gaztelerazkoak euskarazkoa jaten duela. Estreinatu aurretik 28 emanaldi lortu ditugu, beraz pozik gaude! Hasteko ondo dago.

—Euskarazko antzerkia aurrera aterat-zzea posiblea da?

—Batzuek lortzen dute; badaude batzuk euskaraz soilik lan egiten dutenak. Baina ez asko; nik uste dut lehen gehiago pro-gramatzen zela. Jendea ez dator.

Gazteentzako eta aurrentzako antzerkian bai, gehiena euskaraz da; baina helduen-tzako...

—Bilboko Aste Nagusian *La guerra de los Rose* lana emango duzue. Aktore eza-gunak: Carlos Sobera... zer gehiago da *La guerra de los Rose*?

—Zu oso gaztea zara eta ez duzu istorioa ezagutuko. Warren Adler-en pelikula

“Hemen kartel buru ezagunekin hasi gara lanean, bestela inork ez dizu deitzen”

batean oinarrituta dago, oso ezagauna egin zen pelikula batean. Nire belaunal-dikoa da. Pelikula Michael Douglasek eta Katherine Turner-ek egin zuten. Dibortzio baten istorioa da. Oso ondo konpontzen den bikotea da, baina urte-ak pasa eta emakumeak banandu nahi duela planteatzen du. Oso ondo hasten dira baina gaizki amaitzen dute. Etxea da eztabaidagaia. Giza harremanei buruz-koa da; askotan gertatzen da borrokan hasten garenean, azkenean ez dugula zer-baiten alde borrokatzen, irabazteagatik

baizik. Komedia da, umore beltza. Andra asko etortzen dira ikustera eta askotan esaten dute: *“Zertaz egiten dugu barre? Gaia oso serioa da”*. Oso harrera ona izan du orain arte. Carlos Sobera oso aktore ona da, ez da ezagutzen bere akto-re lana. Hemen Barakaldon egin dugu soilik eta ez dakigu zer gertatuko den Bilbon. Denetarik entzun dut: *“Carlos*

gizon jatorra da” edo *“Carlos fantasma butsa da”*. Kanpoan, periferia urrunean oso ondo funtzionatu du: Galizian, Melillan... ikaragarria izan da.

—Esku artean zer daukazu?

—*La guerra de los Rose* eta *Emotikon* eta umeentzako *Viaje en el tiempo* lanekin gaude. Laster Tom Saharperen *Wilt* estreinatuko dugu eta datorren urterako *El nombre de la Rosa* daukagu. Gelditu barik gaude. Ezin da bestela. Gehiegi ekoizten dela esaten dute baina ezin da bestera egin. o

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
Kalea/zenb..... Herria.....
e-mail..... Telefonoa.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro ☐ beste kopuru bateuro

Kontu zenbakia (20 digito)
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□



Getxoko Itxas Argia

50 urte baino gehiago joan dira Getxoko gazte talde batek euskal kultura zabaltzen lagunduko zuen elkarte sortzeko beharra ikusi zuela.

Andra Mariko eskoletan batzen hasi ziren, inguruko tabernariei “burua berotzen” ibili eta gero. Gaur egun, elkarteaz gain, mendi taldea eta dantza taldea daude martxan. Munduan zehar egindako dantza erakustaldiez eta lagun artean antolatutako mendi abenturez gain, urtero uztailaren 25ean (aurten 24an) egiten duten Paella Lehiaketa jendetsuagatik dira ezagun. Hemendik gorazarre egin gura izan diegu, euren historiaren zatitxo bat argazkien bidez kontatuz. Urte askotarako!

Argazkiak: **Itxas Argia**











BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

• 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

• Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.

• Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

• Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

• Ikastolen Elkartaren Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Basartenako finala 23an

Film laburren lehiaketaren **finalistak** aditzera eman dituzte, nortzuk ete?



www.basartena.com

Basartena Film Laburren Jaialdiaren film finalisten barri badaukagu: *Pecera, Desastre(s), Jugando con la muerte, Berlin, Convergentes, Los 4 McNifikos, Artalde, El barco pirata, Todo queda en familia, Vicenta, Una última bala* eta *Ondar Ahoak* lehiatuko dira uztailearen 23ko finalean. Urdulizko Kultur Etxean izango da ekitaldia, bertan proiektatuko dituzte lanak eta sariak banatu.

Urdulizko Basartena tabernako (Elorza kalea, 19) arduradun eta aktore Patxi Lazkanok sortu zuen jaialdia duela lau urte, ofizio zail hori bultzatzen laguntzeko asmoz. Orain Kultur Etxea-

ren laguntzagaz antolatzen du.

Euskarazko eta gaztelarazko filmak aurkeztu dituzte, baina Lazkanok aha-legina egin du euskarazko zinemagintza bultzatzeko. Horregatik eman ohi dio sari berezia euskarazko film labur onenari eta, aurtan, UK aldizkariak ekarpen xumea egin gura izan dio sari horri.

12 lan finalistak proiektatuko dituzte 23ko ekitaldian

Zehazki, fikziozko eta animaziozko film onenek 600na euro jasoko dute, eta Euskadiko Zinema Eskoletako film onenak zein euskarazko film onenak 300 euro bakoitzak. Epaimahaia, alde batetik, Koldo Serra, Borja Crespo eta Aitor Elorriagak, eta bestetik, EHUko Ikus-entzunezkoen irakasle Amaia Nerekan eta Patxi Urkijok osatu dute. UK aldizkariak ere euskarazko film onena aukeratzen lagundu du.

Ekitaldia eta sari-banaketa hilaren 23an izango da, baina giroa berotzen hasteko, Maider Bilbao artistaren sorkuntza lan bat ikusi ahaliko da uztailearen 18tik 22ra Urdulizko Kultur Etxean; performance, eskultura, argazkia, audioa eta bideoa barneratuko ditu. ○

Gonzalo Portugal > Last Fair Deal musika taldeko kidea

“Diskoagaz kontzertuak lortzea eta jendeak gure musika entzutea espero dugu, eta kopia piratak egitea”



Apirilaren 14an jakinaraziko dute Gaztearen Maketa Lehiaketaren irabazlea

Leioakoak dira eta herriko pop-rock lehiaketa irabazi dute, bai pop-rock estiloan, bai sari orokorra. Last Fair Deal taldea dira eta gogotsu dabilta.

—Zenbat denbora daroazue alkarregaz jotzen?

—Dagoeneko sei bat urte daroagu alkarregaz musika egiten.

—Badira urte batzuk beraz; denbora hori eta gero zelan jaso duzue saria, izan ere, gero eta entzutetsuago da Leioako pop-rock lehiaketa eta, gainera, zuen herrian irabazi duzue?

—Oso ondo egin digu, zer esango dizut ba! Egia esan, edozein sarik bultzada ematen du aurrera egin eta musikagaz jarraitzeko; motibatu egiten du eta jo eta ke lanean aritzeko indarra ematen du. Ilusio handia egin digu, ezin uka deza-kegu.

—Pop-rock estiloan irabazi duzue, baina lehiaketaren sari orokorra ere eskuratu duzue. Zehazki zer musika mota egiten duzue?

—Gogoko genituen musika taldeen abestien bertsioak egiteko elkartu ginen,

horrela hasi ginen. Rock&roll, blues eta rythm&blues estiloak jorratzen zituzten talde askoren kantuak ziren, gehienak 60 eta 70eko urteetakoak, Grand Funk Railroad, Free, Taste eta gisako banden abestiak. Horrela ikasi dugu alkarregaz jotzen, mota horietako kantuak joz. Suposatzen dut horregatik geratzen dela 70eko estiloko arrastoa gure musika entzun eta gero.

«Sariek motibatu eta jo eta ke lanean aritzeko indarra ematen dute»

—Zuek ingelesez abesten duzue, zergatik?

—Hainbat arrazoi dago nire ustez. Batetik, bizitza osoan entzun dugun musika ingelesez idatzita egon delako, bestetik, hizkuntza hori nahiko ondo ezagutzen dugulako eta, gainera, fonetikoki errazagoa gertatzen zaigulako horrela konposatzea.

—Saria irabazi duzue, uda aurrera doa eta orain zer egiteko asmoa daukazue, zer pentsatu duzue?

—Lehen diskoa ekoiztu barri dugu, guk geuk gainera. Kontzertu gehiago lortzeko balio izatea eta jendeak entzun dezala espero dugu, eta gura izanez gero, kopia piratak ere egin ditzatela... ○

diskoak

Preachin'
The Reverends
Gaztelupeko Hotsak



Bluesaren hots zaharrak berreskuratu eta eurak erakartzen zituen estiloak utzitako hutsunea bete asmoz sortu zuten taldea gor Garciak (ahotsa eta pianoa) eta Alvaro Martinezek (gitarra) 1997an. Hirugarren diskoa dute hau eta sarrera egin dietenen artean aipa daitezke Robert Cray, Jerry Lee Lewis edota Pinetop Perkins.

Hak'amarra
Peio Ospital
Elkar



Errugiaren eta euskal kantaren historia kontatzen digu disko honek, Peio Ospital pertsona ezagunaren inguruan moldatua. *Hirugarren zatirako* prestatutako diskoa da. Jai giroko disko mamitsua da: festarako kantuakaz, herrimina darie. Errugbia bizitzaren ardatz egin duen gizonarengan hezuramitutakoa.

Gure negu hotzak
Izate
Izate



Donibane Lohizuneko Gaztetxean sortu zen Izate eta 2006an kaleratu zuen lehen diskoa, Musikerriagaz. Orain bigarren lana aurkeztera datoz: *Gure negu hotzak*. Hamabi kantu biltzen du, guztiak barriak. Hitzak hainbat lagunek idatzi dituzte: Xabi Biscay eta BKBO taldeko kantariak, Otalazt olerkariak eta Odei Barroso bertsolariak.

etorri
eta
ikusi!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kaleko 8.a)
Tf. 94 491 68 05
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

**Iñaki
Bítxitegia**

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Hondar arteko hitzak

Oporretan irakurtzeko euskarazko nobedadeak, hona zenbait aukera

Euskarazko liburu barriak ez dira Durangoko Azokako kontu hutsa. Udagaz batera nobedadez pilatzen dira liburu denak, izan ere, sasoi aproposa izaten da eguzkiaren epelean goxo-goxo irakurtzeko. Orriotara dakargu hainbat proposamen.


Alberdaniaren argitalpenen artean pare bat aipatuko dugu. Batetik, Anjel Lertxundiren *Etxeko hautsa* nobela. Hausnarketa egin du idazleak, bizitakoaren berrikuspina eginez irakurlea etengabe pentsarazi guran; 90eko urteetako Euskal Herrian kokatu du istorioa. Bestetik, Primo Leviren *Hau gizon bat bada* liburua daukagu. Mikel Irurtiak itzuli du narrazio hau. Elkarrek ere badakar nobela bat: Alberto Ladronen *Zer barkaturik ez*. II.

Edozeinen gustuko liburuak daude: narrazioa, poesia, saiakera, etab.

Mundu Gerra, amodioa, etab. Saltsa eta intrigarik ez da faltako.

Pamiela argitaletxeak, ordea, saiakera aukeratu du,

eta *Itzalak harturik* liburua kaleratu. Kepa Larrea euskaldunen itzaletan barna murgildu da hainbat gai aztertzeko: hizkuntza, izaera, mitoak, baloreak edota amodioa. Baina poesiarako tartea ere



Bränskint nobelaren azala

badago hondar artean eta Susak Mikel Ibargurenen *Joan da negua* poema liburua aurkeztu du; bizitzaren eta heriotzaren arteko gatazka irudikatu du idazleak.

Txalapartak, barriz, liburu bi kaleratu ditu: Goizalde Landabasoren *Bränskint* eta Belen Gopegiren *Tiroa kontzertuaren erdian*. Bränskint alegiazko hirian kokatu du Landabasok bere istorioa; bestalde, Gopegik 2006an eskaini hitzaldi bat bildu du, euskal literaturan politikaren tiro-hotsak aztertuz.

Beste hainbat titulu dago. Narrazioa, poesia edota saiakera, zure aukera edozein dela, irakurri eta gozatu! ○

liburuak



Estatu etnozidaren kontra
Joxe Manuel Odriozola
Elkar

Hizkuntza eta kulturen kontrako erasoen gaineko hausnarketa aurkitu dezakegu Odriozolaren azken lan honetan. 6.000 hizkuntza inguru daudela diote adituek eta gehienak betiko galduko dira mendea amaitu baino lehen. Zer pentsa ematen du horrek, ezta?



Txakur ingelesak
Lutz Egi
Susa

Beste euskal idazle askok bezala Lutz Egiak ere ipuin bilduma aukeratu du oraingoan. Ikusezin diren hainbat pertsonaiaren bizipenak aurkituko dituzu bere kontakizunetan. Askotan ihes egitea edo izkutatzeari baino eraginkorragoa da oharkabea igarotzea.

[kirola]

Uribe kostarrak traineruan

Eskualdeko hamabi neska-mutil dabilta San Miguel eta Euskotren ligan **arraunean**



Getxo, Arkote, Raspas eta Lutxana Kantauriko Arraun Elkarteko 1. eta 2. Ligan ari dira

Udagaz batera arraun denboraldia hasi eta Kantauriko itsasadar eta ibaieran estropadak antolatzen hasi dira jada. Aurten arraunaren lehen mailan ez da Uribe Kostako talderik izango, baina bai emakumezkoen ligan bai gizonezkoetan eskualdeko arraunlariak izango ditugu lehia bizian. Euskotren Ligan, emakumezkoen ligan hain zuzen, sei uribe kostar izango ditugu 'Bizkaia' taldean: lau getxoxtar, Raquel Cristobal, Ane Ibarra, Olatz Ortega eta Libe Soroa; lemoiztar bakarra, Jone Oliban; eta Ainhoa Zuri-naga erandioztarra. Taldean herrialde osoko arraunlariak ari diren arren, argia da Uribe Kostak bertan duen nagusitasuna: 15 arraunlaritik sei eskualdekoak dira, herena baino gehiago. Bizkaia B taldean ari da lehiatzen, eta momentuz bigarren lotu da Getaria-Tolosaren atzetik.

Gizonezkoen kasuan, Uribe Kostako talderik lehen mailan izan ez arren, horrek ez du esan gura eskualdeko arraunlaririk bertan lehiatzen ez dagoenik. Izan ere, Bizkaiko talde bi dabilta

aurten San Miguel Ligan eta talde bietan topa ditzakegu uribe kostarrak. Kaikun Beñat Astelarra (Plentzia) eta Paul Galdiz (Getxo) ari dira. Urdaibaiko traineruan, barriz, eskualdeko lau lagun ari dira: Javi Polo (Getxo), Jon Elortegi (Barrika) eta Asier Astelarra eta Borja Viadero (Plentzia). Momentuz, talde biak sailkapena-

Uztailaren 30ean neska-mutilek Getxoko Ikurrina jokatu dute

ren lehenengo postuetan ari dira, Astillerogaz batera. Bestalde, ezin ditugu ahaztu Kantauriko Arraun Elkarteko ligan ari diren eskualdeko taldeak: Getxo eta Arkote lehen taldean eta Raspas eta Lutxana bigarrenen.

Estropadak zuzenean ikusi gura duenak horretarako aukera izango du uztailaren 30ean, Getxon, 18:00etan. Egun horretan jokatu baita Getxoko XXXIII. Ikurrina San Miguel Ligan eta III. Ikurrina Euskotren Ligaren kasuan. Zorte on eta boga, mariñelak! ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda

350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 - ALGORTA

Paulo Rojas > Langile soziala Txilen

“Txile ez da horren demokratikoa, kritikoa dena jazartzen dute”

Maputxe komunitateakaz lanean dihardu Paulo Rojas Txilen. Ekainean hainbat hitzaldi eskaini zuen gurean “*Txileko mugimendu sozialen kriminalizazioa eta maputxe herriaren borrokari*” buruz, tartean Algortako Eztabaida gunean.

—Europar ibili zara hilabetez.
—Harremanak berreskuratzen ibili naiz, bertako egoera Txilekoagaz konparatzen. Sistema errepresiboak parekoak dira, borrokalari sozialak eta jendartearen ikuspegi kritikagoa dutenak erasotzen dituzte. Aurrekaria izan da, datorren urtean lan sakonagoa egingo dugu.
—Maputxeakaz lan egiten duzu.
—Hezkuntzan eta osasungintzan egitasmoak garatzen ditugu Txiletar Estatuko hegoaldean. Umeen aldeko apustua egin dugu.

—Horri buruz hitz egin duzu hitzaldietan, baina beste gairik jorratu duzu?
—Shock dotrina da abiapuntua. Hori erabiltzen da politika ekonomiko, sozial edota judizialak edozein herrialde eta gobernutan txertatzeko; beldurraren doktrinagaz zerikusia dauka. Sistemak errazago dauka eragiteko moduak sartzea jendea babesgabe dagoenean. Sistema edo ekonomia neoliberala eta errepresioa batera doaz, errepresioa erabiltzen dute altxamendu saiakerak baretzeko. Txilen 70eko urteetan gertatu zen Pinocheten estatu kolpeagaz, baina Amerika Latina ia osoan gertatu da, merkatu eredu txertatzeko. Egun ere Txileko sistema demokratikoa ez da horren demokratikoa, ikuspegi kritikoa duena jazartzen dute. Susmagaitzak ziren zerbitzuak pribatizatu dituzte. Itsasoa partzelatu zuten izokin-industriarako eta



Ekainean hitzaldia eman zuen Algortan Maputxe herriari eta mugimendu sozialei buruz

Hidroaysen egitasmo erraldoia dago orain: bailara bat 70 metroko elektrizitate-zutoinez beteko dute, 2.300 kilometrotan zehar. Laboreei eragingo die erradiazioak, baina bitxiena zera da, bakarrik zeharkatuko dituela estatuaren aburuz maputxeen errebelde guneak direnak.
—Kriminalizazioaz ari zarenean mapu-

okupatu bat zelatatu zuten, sartzen ziren lagunak grabatu, telefono entzuteak eta jarraipenak egin zituzten. Muntaia egin zuten, kasua eredu izatea gura dute eta. Maputxeez gainera, anarkistak dira etsai nagusiak estatuaren ikuspegitik.
—Gose greba luzea burutu dute hainbat presok, zertan da auzia?

“Susmagaitzak ziren zerbitzuak pribatizatu dituzte, adibidez, itsasoa partzelatu zuten izokin-industriarako”

txeei buruz ari zara bakarrik?
—Orokorrean ari naiz. Bonba kasua daukagu, adibidez. Hiruzpalau urtetan 200 leherketa izan zen. Fiskalak ez zuen topatu arduradunik. Bachelet presidente sozialista joan eta eskuineko Piñerak hartu zuen kargua. Fiskala aldatu eta hiru hilabetean burutu zuen ikerketa: etxe

—Duela bi aste bukatu zuten, akordioa lortuta. Fiskal baten aurkako ekintza bat egitea leporatzen diete eta hori ere muntaia da. Epaiaketa baliogabetzeko eskatu da, frogak ez datozelako bat egiagaz.
—Etorkizunean zer espero duzue?
—Faktore batzuk gertatuz gero, epe ertainera lortu liteke lurren kontrola. ○

Fredi Paia

Txorik: zeruko mezularik

Naturari asao bizi garenontzat, eta asao esaten dunen distantzi mentalaz gabiltzez, arrainek eta txorik dao, gihauko barik. Arrantzale zaharrak *lazune* esatetsen arraineri *muble* esatetsegu orain eskualde duztin, baita lagun bati hori ezuzena imini bere. Txoriten, oster, *itxestxorik* eta usok baranduten duz, uzenik esaten azertaten ez dun baie gure kaletan sarriten dabil-tzezen *artatxoriz* ganera. Gure euskeldun zaharrak usori esateko *palome* dineude, eta itxestxori berbe arrantzale ez direzenen esakune da. Itxosora urtetan deudenak, armintzarrak kasureko, *kalatxori* esatentse itxestxoriri, Lapurdiko kostalden antxine esaten daken lez.

Ixen lite auskerez bat ixete *txori* eta, guren *sorte* badinotsegu bere, gure eskuten ez daena aitaututeko ibiltan dan *zori* berbe. Gauze jakine da Europa duztin, sikan bere, txori eta zori sano lotuteko kontzeptu bi direzela pentsakera zaharren. Hau de, naturegaz baten bizi gintzezen sasoin eratu gendun pentsateko modun.

Gure aitite-amamen artan sano sustrai-tute topa du txori bakotzak esangure eta mezu desbardine dekon beginzino. Esaterako, Europako hamaka lekuten ude-barrin ikur den *elai*, txori sagradutzet deuke aldea-etxe ugeriten. Alkarrizketatu duzen edadeko duztik esaoskue auren guresok serio galazo eutseela elai hilde, pekatu de-ta. Elairi erradure iminten dakon etxeko portalen, bertan habi ein eian. Ixen bere, horrek txorik kumek in osten jon eta hurrengo aldin eurreko urteko habi bardinera iten deu buelte. Gure lekukok ez dakie ondo zeaitik okiten dakon horrenbesteko errespetu elairi, baie mamarro asko jaten ei dauz, eta hori laguntzino handi da aldea-etxetan bizi direzenentzat. Elairik bako udek eulitxuk ixeten ei direz. Sopelabaso ingerun entzun nendun elaik bijili iten deule Aste Santun, eta portalen daonen katuk ez do-



Txindorra

tsela ukuturik iten, ezta hilda daonen bere *Txindorra* bere txori estimedu eta sagra-du ixen da guren. *Txindor papargorri* zeruko *mandatari* kantateutsen arteragokok.

«Txindorra bere txori estimedu eta sagradu ixen da guren»

Txindorra ingerun paraten badatsu zeutza-ko barri ona dakarrelakon ei da. Aro txarra daonen tristerik egoten da txindorra, baie aro ona egonta tristerik badao, egun gitxite-ra notizi txarra etorriko dalako dekie edadekok. Ez dekotse bildurrik personari eta edurtze nahi lehi handik daozenen etxe barrure sartzen ei da ate iri ezkeron. Txindorra hilde duztiz galazota egoten ixen da. Halanda bere, gure lekuko kazeruntzeko *txori inuxente* da, iten eudezan tranpatan jeusten zan lelango ha ixeten zan-da.


Gauontza ikustek edo bere kantu entzutek bere sorte ona ei dakarree.

Epetxa, sorgin-epetxa edo *txamilotxa*, hirutera gedar iten deutse Erandioti Lemuxera, zer txarreko pizti da, oster. Txori txikerra da eta bere kantuk artega iminten dauz ingerun dekozenak. Esate da epetxa ingerun badabiltsu *nobedade* txarra datort-sule. Lemuxen batun du, esaterako, behin Jatabeko bizarginaren etxe *suharri* edo *elektrizide* barik lotu zala sorgin-epetxak bezero bateri segidu otseelako bertaraino.

Kuku txorik anega terdi upin eta esakune eragin dauz. Hasiteko, udebarriez batera ei dator, martin hemeretziereko berton ei dao, baie aprilen zortziereko ez baletor *ondrak* in ber lekioz, hau de, lur emote. Gero, San Pedrotxuten Sopelako alkateaz aurreku jantza eta alde iten ei dau hurrengo urtera artan. Halandaze, Saioak aurreku ikesi berko dau. Kuku txori alperra da, seguru bere. Txamilotxari kumek jan eta berek itxiten dauz habin, epetxak jaten emon eitsen. Sorgin-epetxa, baie, kuku bai-zen askoz txikerrao da, eta makine bat hoz-bero igeroten dauz kuku-kume derditxedu-ri jateko topaten. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitez.



portu
zaharra
bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com

La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07

berezi

Hanburesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)

Zure taberna edo jatetxea
hemen agertzea
gura baduzu
ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

txakoli
motaTx.
txakolina

leioa-Unbe errepeidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com

UNAI TABERNA

WWW.UNAITABERNA.COM

94 466 16 61

URGULL KALEA 2. (ALGORTA)

CAFETERIA
COSMOPOLITA

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80

JAN-TOKI
ORMAZTEGUI

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:

94 476 2389
607 21 89 61
LUTXANA-ERANDIO

GURE
ETXEA
taberna

HAMBURGESA, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA

Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

Zure taberna edo jatetxea
hemen agertzea
gura baduzu
ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[udako**zaporeak**]

Txipiroiak tintan

Algortako saninazioetan beltzez tindatu



Abuztuaren 1ean egingo dute lehiaketa

Azken zenbakiotako errezetakaz ahoa urtu zaigu, eta rabu eta paellaren ostean, txipiroien txanda iritsi da; Algortako saninazioetan egingo dute lehiaketa, abuztuaren 1ean. Azken urteotan epaile ibili da Jorge Fiat Tellagorri jatetxeko sukaldaria eta, beraz, txipiroiak tintan prestatzen irakasteko nor hobe?

Ezer baino lehen, txipiroiak aukeratu behar dira. Fiaten iritiz, kazolarako onenak 8 eta 10 zentimetro artekoak dira. Ondoren, garbitu behar dira eta hankak txipiroiaren gorputz barruan sartu.

Buztin ontzian prestatzen dira txipiroiak. Kazolan olio zorrotada bota eta tipula, berakatza eta piper geruza bat ipiniko da. Ondoren txipiroiez bete behar da eta gainean beste barazki geruza bat.

Gatza bota eta egosi behar da txipiroia egin arte. Ondoren, kazolatik atera behar dira barazkiak egiten buka daitez. Horren ostean, tinta gehituko zaie eta ogia edo hirinagaz ligatu behar da saltsa, puregailutik pasatu eta iragazi aurretik. Barriro sutan ipini, irakin eta txipiroiak gehitu behar zaizkio. Bukatzeko, hiru minututako irakinaldia egin eta sutik kendu. Listo, egina dago!

Epaileek zenbait gauza baloratuko dute, ohiko legez: zaporea, txipiroiaren egosketa-puntua, saltsa (distira, ehundura, etab.) eta kazola oro har. Sukaldari trebeok, ausartuko al zarete oraingoan? ○

Osagaiak: txipiroiak, tipula, berakatza, piper berdea, labearen erretako ogia edo hirina, ardoa, olio, gatz eta tinta

Turikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T. 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T. 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

BASARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Ariñuze z.g. • Tf.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Maria Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN

“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa”
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarreriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA



irratia 108 FM

[horoskopoa]

URA  (Abenduak 21 urtarrilak 19) Abuztua hortxe da eta oporretan nora joango zara? Almeria, Txina, Asturias, Pirinioak... Begiak itxi eta gura duzun tokira joango zara konpainia ezin hobean...	OTSOA  (Urtarrilak 20 otsailak 18) Buruhaustek alboratu eta garai tristea atzean utziko duzu azkenean. Arazoak arazo, aurrera egingo duzu apurka-apurka. Beraz ez etsi, tontorrera iristeko gixi falta da eta!	ADARRA  (Otsailak 19 martxoak 20) Azken txanpa duzu. Aste gixi barru lana bukatu, maleta egin eta hondartzara joango zara. Ezusteko bat baino gehiago izango duzu, beraz tentuz ibili eta ondo pasa!
AITZURRA  (Martxoak 21 apirilak 19) Sasoí ezin hobean zaude, bai fisikoki bai psikologikoki. Izarrak zure alde daukazu; beraz, aukera aprobetxatu eta aspaldi egin gura zenituenak gauzatu, ez zaizu damutuko!	HOSTOA  (Apirilak 20 maiatzak 19) Lagun min bategaz haserretu eta zekulako sesioa izango duzue, sekula baino beroagoa. Alkarri erakartzen diotenak horretaz ohartzen azkenak izaten dira...	EGUZKIA  (Maiatzak 20 ekainak 18) Eguzkia piztu dela ezin uka, aurpegian nabaritzen zaizu argitasuna. Aste zoragarriak igaroko dituzu eta zorte ikaragarri ona izango dute zure ingurukoek: ez zara bakarrik egongo.
GARIA  (Ekainak 19 uztailak 18) Marte daukazu zure zeinuan eta amorratuta egotea eragingo dizu. Horregatik errieta bat baino gehiago biziko duzu. Sosega zaitez, eta beharrezkoa denean, barkamena eskatu.	LASTOA  (Uztailak 19 abuztuak 17) Lastoak pisu gixi dauka eta haizean erraz egiten du dantzan. Halakoxea zara zu, alai, arina eta pinpirina. Beraz, mendira bazoaz tentuz ibili, haizeak eroan barik...	IRATZEA  (Abuztuak 18 irailak 16) Beti urrunera so, begirada galduta... Non ete daukazu burua? Ilargia aste batzuetan izango duzu lagun oraindino, a zer pazientzia izan beharko duten zure ingurukoek!
META  (Irailak 17 urriak 16) Zoramenak eta antsietateak joia ilehori tindatuko duzu ulea, baina biharamunean, zure burua ispiluauren aurrean ikustean, ikaratu egingo zara. Lasai egon, ulea hazi egiten da eta.	HAZIA  (Urriak 17 azaroak 15) Jaialdi baterako txartela oparitu eta pentsa barik joango zara. Ailegatzean hartuko duzu ezustekoa, zu baserritarrez jantzita eta ingurukoak larru baltzakaz. Hau ez da San Lorentzo!	NEGUA  (Azaroak 16 abenduak 20) Dagoeneko solariumera joateari utzi beharko zenioke, orain ez zara besteak baino gehiago, mundu guztia dago beltzan baino beltzaranago. Gorde itzazu soberako saioak datorren udabarrirako.

NORA

EUSKAL HERRIA


Bideak zabalduko dizkigu gure lurraldeak miatzeko eta ezagutzeko.

Eskuratu KIOSKOAN:
Hilabetero 2,5€ ordainduta
BERRIA egunkariarekin batera

ETXEAN:
Harpidedun eginda, hilabetero etxean urtean 24€ ordainduta.
Kioskoan baina %20 merkeago.

Harpidetza egiteko:
TELEFONOZ: 943 30 35 54
POSTA ELEKTRONIKOZ: harpidetza@nora.aldizkaria.info
WEBGUNEAZ: www.nora-aldizkaria.info





Irudi Gurutzatuak

Hiriko altzari eta osagarri hauen izenak laukietan idatzi ondoren, hirian horren eskas eta aldi berean beharrezko dugun zerbait irakurriko duzue gelaxka ilunetan.

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

S B P S K Z K

ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Getxoko zein auzotan ospatuko dituzte San Inazio Jaiak uztaileko azken egunetan?

> Aurrekoaren erantzuna: Erlezaina
> Irabazlea: **Ez dago irabazlerik***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Zein da Mari Jaiaren Gasteizko eurtitakodun laguna?

- **Zeledon**
- **Txo**
- **Tiritatxo**

> Aurrekoaren erantzuna: Bainujantzia
> Irabazlea: **Ez dago irabazlerik***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

Oinutsik
kontsulta podologikoa

Zubigane 4, Sopelana
Tf: 94 404 74 20
oinutsik@euskalnet.net

SARIA

La Gusana
liburudenda

Tellagorri plaza, Algorta
Tf: 94 491 14 12

lagusana

Bidalai erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



ANGEL INTXAUSTIK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

GETXOKO PAELLA EGUNA, 1964

Getxoko Paella Lehiaketaren 9. edizioa izan zen 1964koa, Azkorriko landetan egina. Argazkiko lau lagun algortarrek (Angel, Koldo, Emilio eta Manu) Erandioko lau neska (Mari Carmen, Lucia, Yolanda eta Mari Jesus) gonbidatu zituzten Paella Egunerara. Horretarako mila pezeta jarri eta Koldok lau neskei eman zizkien behar ziren gastuetarako; hori bai, ardoaz beraiek arduratu ziren. Batzokiaren ondoan zegoen "Hormaza Ardoak" ardoteagian garrafoirik handiena, hamasei litrokoa, erosi eta oinez eraman zuten Azkorriaraino. Laugarren saria eskuratu zuten eta eguna borobiltzeko "Mamarro" tabernan askari-afaria egin zuten hondakin guztiak amaituz. ○

Zutunik: ?, Imanol Torrontegi(GB), Marisa (bere emaztea), Mª Carmen Carrete, Lucia, Yolanda Ruiz, Mª Jesus Asla, Juan Arenaza "Chaquetón" (GB), ?, Felix Olivares (GB).

Makurtuta: Begoña Olivares (GB), bere ama (GB), Emilio Uriarte, umea kopari heltzen (hau da beraien trofeoa eta ez bestea, gizon ezezagun baten eskuetan dagoena), Angel Intxausti, Koldo Uriarte, Manu Martin, Maibe (umea, Jose Luis Ajuriaren alaba), Jose Luis Ajuria eta besteak ezezagunak dira, ez dira laguntalde honetakoak argazkirako jarriak baizik.

JOSE MARI > Bizardunak taldeko abeslari eta ideologoa

“Parranda, polita? Nire parrandak beste era batean izendatzen ditut”

Testua: **Julen Nafarrate**



- Defini ezazu zeure burua berba bitan.**
Langile arrunta.
- Orain zarena izango ez bazina zertan ezingo zenuke jardun?**
Polizia, inon ere ez, ezta Kuban ere...
- Badaukazu ohitura txarren bat?**
Gorrotatzen onegia naiz.
- Aitor dezakezun bizio bat.**
Beste galdera bat, mesedez.
- Zein da zure ametsetako bat?**
Ez zaizkit ametsak gustatzen, ia inoiz betetzen ez direlako eta jendea ahultasunean murgiltzen dituelako.
- Zer barik ezin zaitezke bizi?**
Lehen munduko tipo bati hau galdetzea obszenitatea iruditzen zait.
- Miresten duzun historiako pertsonairen bat?**
Fidel Castro eta Arthur Lee.
- Animalia bat izango bazina, zein izango zinateke?**
Balea bat naizela esango lizuke Artolak, taldearen beste abeslariak.
- Azkenaldian egin duzun erokeriarik handiena?**
Erokeriak baino tontakeriak... adibidez, talde honetan parte hartzea.
- Parrandarik politenak non?**
Parranda, polita? Nire parrandak beste era batean izendatzen ditut.
- Zein da biharko egunkarian irakurtzea gustatuko litzazukeen berria?**
Nafarroaren independentzia.
- Zerk ematen dizu beldur?**
Espainolek, argi dago zergatik, eta moskitoez.
- Zein galderari ez zenioke inoiz erantzungo?**
Nor bait hiltzeko prest zaude? o

LABURREAN— “Triste bizi naiz eta, hilko banintz hobe, euskal grungea amerikarra baino lehen, Arzalluzen teoria psikode-likoak, si Teruel existe Zuberoa también”... ‘Nazi de fresa’ kantaren letrak argi erakusten du zeintzuk diren Bizardunak taldearen ezaugarri nagusiak: umore ona, nafartasuna, ironia eta parrandarako gogo bukaezina. The Dubliners eta The Pogues taldeak erreferentzia hartuta, bizardunek euskal folk erradikalaren sortzailetzat dute euren burua. Nafar eta irlan- dar festa-giroen nahasketa zoroa gura duenak horretarako aukera izango du uztailaren 31n, Algortako saninazioetan. Bizardunek behintzat, ez dute zalantzarik parranda botatzeko... “Nire neskak erran zidan bera edo farra aukeratzeko... agur, nahiago dut festa!”.

Zabaldu euskararen atea



Hauxe da aurreztu dezakezuna zure establezimenduaren errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskaraz jartzen badituzu

%50 gehienez 360 euro, euskaraz hutsez jartzen baduzu. **%30** gehienez 180 euro, euskarazko testuak lehentasuna badu.

Getxoko enpresa hauetan eska dezakezue zuen errotulua, lehenengo seletan, gainera, deskontu gehigarria egingo dizuete:

%10 eko deskontu gehigarria euskaraz jartzen baduzu. **%5** ekoa euskaraz eta gaztelaniaz jartzen baduzu.

TOLDOS Y PERSIANAS MURGUIA

Euskal Herria 10. 94 466 00 10

RÓTULOS PUBLIARTE

Bitebarr 10. 94 466 00 10

CIANOPLAN

Pientzia herriaren katea 6. 94 464 85 72

ULI ARTE PERSIANAS

Andres Cortina 10. 94 403 05 00

LA REPRO

Euskal Herria 10. 94 466 00 10

KALKO

Antzuola herriaren katea 4B. 94 466 20 83

KISER

Kate Nagusia 10. 94 464 73 37

AMETS

Teleten 13. 94 460 10 31

RÓTULOS ARRILUCE

Arriluce katea 2/3. 94 466 00 10

HIZKUNTZA AHOLKULARITZA GETXOKO SALTOKIEI

94 415 22 52
gehi@getxo.net

GETXOKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA

94 466 00 10/11
euskara.zerbitzua@getxo.net
www.getxo.net

DESKONTU GEHIGARRIA



Bai Euskarari urrats biziak



ziurtagiriaren **elkartea**



baieuskarari.org